

# ttipi ttapa

2005eko abenduaren 1a • XXV. urtea

411



«Aio Leitze»  
hiztegia kalean

03

Mikel Olano Iurrtia leitzarrak «Aio Leitze» hiztegia kaleratu du. «Hitzei baino hizkuntz senari garrantzi gehiago eman behar zaiola» uste du idazleak.



Mikel Mindegia: 56  
urteko txapelduna

32

2000. urteka azkenekoa zela zirudien, baina Larretxea eta Nazabalen hutsunea ederki probextu zuten Mindegiak, Nafarroako txapela berriz ere janzteko.



04

NAFARROA OINEZ 2006

Labiaga ikastola  
lanean hasi da



LABIAGA

# SUKALDE

# LILURAGARRIAK

GARANTIA EN MUEBLES  
5 AÑOS  
GARANTIA EN MUEBLES



- ✓ Adituek diseinatua
- ✓ Europako liderraren kalitate aiena
- ✓ Sukalde mobleetan 5 urteko bermea
- ✓ Ordaintzeko erraztasuna 60hilabete arte

Etengabe berritzen den  
2500m<sup>2</sup> ko erakustokia



**MASTERkitchen**  
DESIGNO EN SU COCINA

ALTZARI MODERNOA • ALTZARI KLASIKO • EGONGELAK • JANGELAK • SARRERAK • ALTZARI LAGUNGARRIAK • LOGELAK • GAZTE LOGELAK  
• SOFA • ARMAIRUAK • SUKALDE MOBLEAK ... • Kalitateko altzariak preziorik onenean eta finantzaketa baldintza ezin hobek

# MOBEL - KASA

## ALTZARIAK

# ALTZARIAK



Nacional 1, km. 472 errep. 113 Industrialdeak  
Gaintzurtzeta LEZO. Tel: 943 261 195  
www.mobel-kasa.com

## DATUAK...

• «Aio Leitze» izeneko hiztegia argitaratu eman du Mikel Olanok leitzarrak. Azaroaren 18an egia zuten aurkezpena Leitzan.

• Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen laguntza handia izan badu ere, zati tiki bat bere sakaletik gustora ordaindu du.

• Euskal Filologian lizentziatua, lehenik Leitza eta Aresoko hizkerari buruzko liburua argitaratu zuen. *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian bi artikulu argitaratu ditu.



Mikel OLANOK IRURTIA «Aio Leitze» hiztegiaren egilea

## «Hitzei baino hizkuntz senari garrantzi gehiago eman behar zaio»

Aitor AROTZENA

Izenburu berezia jarri diozu hiztegiari: «Aio Leitze». Zergatik despedida itxurako titulu hori?

Hasieran Leitzako hiztegia edo horrelako zerbait pentsatu nuen, baina zerbait gehiago jarri nahi nion, ez baita hiztegi hutsa, beste zerbait badu. «Aio Leitze» izenburuak garbi adierazten du garai bati adio esatea dela, bestela pentsatzea hipokrita izatea litzateke. Garai bat badoa eta garaia da esateko eta onartzeko. Beti ari gara gauza berarekin, euskalkiak galtzen ari dira, lexikoa galtzen ari da, baina ez dugu behar haina lan egiten. Ni lan bat biltzen saiatu naiz, esateko 'honaino hau izan dugu', balio dezala testimoniorako.

**Nola dago antolatua hiztegia?**

Lanean hasteko, Joxe Mari Azpiroz zenak Euskara aldizkarian argitaratutako artikulu batzuk biltzen hasi nintzen. Leitzan ez zituen inork ezagutzen. Adibidez, *irispobe* hitza Azpirozek bildu bazuen, hark zer esaten zuen jartzen dut. Berak azalpena erdaraz eman zuen eta nik euskarazko azalpena ematen dut. Batuan no-

**«Herri handi xamarretako hizkerari buruz egiten diren lanak erreferentzialak izaten dira.**

**Baztanen Mariano Izetak egia zuen eta Bortzirietan eta Goizuetan ere egia beharko litzateke»**

la esaten den ez dakit, *irispobe* hori: Harrapa ahala guztia beretzako nahi duen pertsona da, baina hitz bakarrean adierazteko, nik ez dut ezagutzen. Beste batzuetan, hitzak euskaratuaren ordaina duenean, nik euskaratuaren ordaina jartzen diot. Leitzako zaharrek erabiltzen duten *ekusi* sarreraren ondoan batuako *ikusijartzen* dut. Euskara batua haintzat hartzeko borondatea dago hor. Argazkiak ere badira, 250 bat. Hiztegia idaztearen arrazoiak etorkizuneko gizaldiak osatuko dituzten hiztun horiengan bilatu behar omen da... Hauek, ordea, ez al duzue gero eta hizkera homogeneizatu baterako joera?

Bai, alde batetik gaztekeraren eragina dago, gaur egun inoiz baino han-

diagoa dena. Eskura ditugu nahi ditugun medio guztiak eta gehienak erdarazkoak dira. Euskarazkoak ere badira, baina medio euskaldunetan dugu euskara behar bada ez da beharko lukeena bezain ona. Euskara batuaren erasana ere hor dago. Koldo Zuazok berak garbi aipatzen du, Lehen Hezkuntzako leugarren maila arte edo ez litzatekeela batua sartu beharko, bertako euskara sendoa den herrietan.

**Bertze herrietako gela edo hormari Leitzan kolle esaten diozue... Beste hitz berezirik topatzen ahal da hiztegiari?**

Leitza bertako hitz bereziak gutxi dira. Kolle ere ez da Leitzakoa bakarra. Ezkurra errekan aditzen da, *mu-kikolle* esaten diote. Hitzari eta formen konbinazioa izaten da hizkera berezi egiten dutenak. Hitzei baino hizkuntz senari garrantzi gehiago ematen diot hiztegiari. Kontua da herri handi xamarretan euskarari buruz egiten diren lanak erreferentzialak izaten direla, Baztanen Mariano Izetak egia zuen eta Bortzirietan eta Goizuetan ere egia beharko litzateke.



**Berako Labiaga Ikastolan** ilusioz eta gojoz gainezka daude. Urriaren 16an jaso zuten hurrengo urtoko Nafarroa oinez prestatzeko lekukoa eta lan horri ekin diote dagoeneko: leloa eta logotipoa aukeratu, eta jendaurrean aurkeztu dituzte, azaroaren 15ean iruñean, Nafarroako Ikastolen Federazioko egoitzan, azaroaren 18an Berako Kultur Etxean eta azaroaren 23an Lesakan. «Baietz oraingoan!» hautatu dute lelotzat, ikastola behingoz bere etorkizunaren jabe izanen dela ziur direlako ikastetxeko arduradunak; irudiztat, berriz, Kukuxumusu etxekoek egindako marrazkia. Gainditu behar izan dituzten oztopoak eta bidean bota duten izerdia islatu nahi izan dituzte logotipoan. Labiaga ikastolako etxola azartzen dizkieten oztopoen gainetik, ur zirimolaren gainetik ageri da eta hori lortzeko, alboetan ageri diren izerdi tantak beharrezkoak dira.


Aitor AROTZENA

2006ko Nafarroa Oinez antolatua ahal izateko ere izerdia bota behar du dela argi dute Maider Senper eta Iñaki Castilok, Labiaga ikastolako zuzendari eta gurasoen kooperatibako presidentek, baina erronkari aurre egiteko prest dira.

1974an ekin zion Berako ikastolak bideari, Herriko Etxeak utzitako gela batean. Patiorik ez zuten, plazan eta elizako eskaileretan aritzen

«BAIETZ ORAINGOANI!» LELOPEAN EGINEN DA

# Berako Labiaga Ikastola 2006ko Nafarroa Oinez prestatzen hasi da



## Mainer SENPER Labiagako zuzendaria

Labiagan DBH legeztatze-ko urratsak ematen ari direla aipatu zen iruñean egin zenuten aurkezpenean. Zertan dago egoera?

Federazioa Berako ikastolaren eta eremu ez euskaldunetan dauden lau ikastolen etorkizuna negoziatzen ari da. Bai kor gaude, baina hau dena iruñetik eramaten dute. Guri zain egotea tokatzen zaigu.

**Zu zeone ikastolan ikasle eta irakasle izan zara, orain zuzendari, abudo guraso... Nola ikusi duzu ikastola-**

**ren bilakaera alderdi ezberdin horietatik?**

Ni ikastolako hirugarren promoziokoa naiz. Hasiera go-gorra izan zen, hezkuntza eredu ezberdina zelako, baina nik beti ilusioarekin ikasi dut ikastolan eta harreman berezia genuen irakasleekin. Hasieran ongi ikasten genuela erakutsi behar izaten genuen. Ikastola beti nerekin eraman dut. Irakasle gisara arraroa izan da, nere irakasle izandakoekin lan egiten dudalako. Orain zuzendari bezala berdina, arazorik gabe. Orain denok ilusioz hartu dugu Nafarroa Oinez-en antolakuntza, ikasle, irakasle eta gurasoak hagitik inplikatuak gaude.

## «Ikasle, irakasle eta gurasoek ilusioz hartu dugu Oinez-en antolakuntza»

ziren jostetan lehen promozioa ikasle haiek. Zazpi urte Herriko Etxean eman ondok, Artzapezpikutzak utzitako Lagun Etxera joan ziren ikasle eta irakasleak. Altxateko egoitza berria izan zen hurrengo urratsa, eta azkenak, Eztegarako zentroa, 1994ko Oinez-i esker egin ahal izan zutena.

### «DBH EGOERA ALEGALEAN»

Altxateko eta Eztegarako egoitzak ditu gaur egun Labiagak eta 200 ikasle baino gehiago. 1994. urtera arte ziklo guztiak legeztatuta zeuden ikastolan, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezarri zutenetik, ziklo hori legearen babesik gabe gelditu zen. *«Ondorioz, hitzarmenik eta dirulaguntzarik gabe gaude, egoera alegalean»* —dio Mainer Senper zuzendariak— *«eta gurasoek hartu behar izan dute inbertsioen ardura bere gain»*. 900.000 euro gastatu zituen Labiaga ikastolak Eztegarako ikastetxe berria egiteko. Gurasoek ere, 2.260.000 euro ordaindu behar izan dituzte DBHk aurrera egin zezan hamar urte hauetan.

Nafarroa Oinez bestarekin, beraz, ikastolaren egoera ekonomikoa hobetu nahi dute ikastolako kideek, *«oraingo zama arintzeko»*. Gaur egun 96 ikasle ditu Labiagak DBHn eta Nafarroako Gobernuak dirulaguntzarik ematen ez duenez, ikastolako gurasoek ordaintzen dute sakelatik seme-alaben hezkuntzaren kostua. Patxi Castillok aurkezpenean erran zuen bezala, *«hamar urteko lanaren ondok, gure etorkizuna erabakitzeke garaia ailegatu da eta lortuko dugula badakigu, beraz, Baietz oraingoan!»*.

## EUSKARA ESKOLARA BIDEOSOAN BAIETZ ORAINGOAN!



2006koa Beran eginen duten hirugarren Nafarroa Oinez-a izanen da, 1983an "Euskara eskolara" eta 1994an "Bideosoan" izenburupean egindakoen ondok. Dagoeneko 250 lagun lanean ari dira heldu den urteko Nafarroa Oinez arrakastatsua izan dadin, Baietz oraingoan! lelopean.

Hiru Nafarroa Oinez, bakoitza bere historia-rekin antolatu ditu Labiagak. Gaur egun D



eredua erabat hedatua dago gure inguruan, baina 1983an ez zen horrela. Horregatik aukeratu zen «Euskara eskolara» leloa. Duela 22 urte besta egun tikia izaten zen Oinez, baina irailaren 18an 15.000 pertsona hurbildu omen ziren Berara.

1994ko Oinez, «Bideosoan» lelopean egin zen. Izokinak Bidasoa erreka osoa behetik goiti egiten duen bezalaxe, Labiagak Haur Hezkuntzatik DBH bitarteko



eskaintza eman nahi zuten. Orduan lortutako diruarekin, Eztegarako ikastetxe berria eta DBH bultzatzea lortu zen, oraindik modu alegalean bada ere.

DBH erabat legeztatzea da 2006ko Oinezaren helburua: *«Baietz oraingoan!»* esaldiak horixe adierazi nahi du. 1994ko besta eguna guardiazibilak zapuztu zuela eta oraingoan besta egun oso-oso izanen dela ere segur dauke Labiaga ikastolan.

Hori dena lortzeko dagoeneko 200 lagun baino gehiago lanean hasiak dira Beran, batzorde ezberdinak osatuz: urte osoan egingen diren ekitaldiak antolatzen dituen batzordea, komunikazioa, patrosinioa, ibilbidea eta aparkalekuak, osasuna, materiala... *«Lana egin nahi duen jende guzia ongietorria izanen da, argi eta garbi!»*.

Oraindik ibilbidea nondik izanen den erabat zehaztu gabe dago, batez ere jende guziak aisa egiteko modukoa egin behar baita. Aparkalekuen arazoa ere hor dago: *«1994an Oinez Beran egin zenean, Agerra eta Alkaiagan belagi haundiak genituen, orain industriaidea eta etxebizitzak daude, baina moldatuko dugu!»*.

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa

Presidentea: Pello Apeztebas

Kudeatzailea: Joxemai Ingoien

Zuzendaria: Aitor Arotzena

Publizitatea: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia

Berriemaiak: Esteban Arotzena,

Juana Mari Salazar, Kontzi Klaber, Pello

Zestau, Arkaitz Mendegia, Franck De-

losor, Margari Etxenika, Koro Irazoki,

Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine

eta Krispin, Angela eta Xamo,

Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Jo-

seba Olagarai, Nerea Mitsellorena,

Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ain-

hoa Irazoki, Rakel Gorri, Rakel Ami-

go, Irabe Kontsumitzaileen Ekartea...

Imprimategia: Gertu

Erakunde laguntzaileak: Bera, Leiz-

ta, Goizuetza, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpere-

ko udalak, Zugarramurdiako Akelarre

elkartea, Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Mainerreko Zerbitzu

Mankomunitatea...

#### Harpidetza sarriak:

Hego Euskal Herria	28 €
España	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Mainerreka eta Leizta	23 €



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jauriaritzako Kultura Sailaren  
laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Guk ere lehen mailako nafarrek izan nahi dugu

Alvaro Miranda, Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako kontseilari jaunaren adierazpenen aitzinean, gure gaitzespen eta haserretik handiena adierazi nahi dugu.

Gobernuan Nafarroako errepedeen gaineko ardura duen pertsonak pazientzia eskatzea, «piko bat aguantatzea, konfidantza izatea...» izugarria iruditzen zaigu. Gizakien bizitzetaz ari gara, bakarrik Bortzirietan 250 ikasle ditugu, errepede horretan egunero dabilzan gazteak, beraiekin ikasketekin segitzeko egunero Iruñ, Donostia edo Iruñera mugitzen direnak kontuan hartu gabe. Horiei guzietan, industriako langile guzietatik gehitu, lau txandatan aritzen direnak... Zenbat bidai bide-zati berean?

Eta zuek, Gobernuok, zerbitzuak zentralizatu nahian behin eta berriz: solastu dezagun osasun mentalaz, buruko eritasunak edo bertzelakoak dituztenen errehabilitazioaz, emakumearen arretaz, etabar... zonaldeko bizilagun gehiago bizitza jokoan jarri N121 errepedean.

NAFAR guzietan Gobernu kontseilari jaunak, ados jar zaitezte, zerbitzuak zentralizatzen badituzue joan-etorrian ibili beharko duzue eta garraioan segurtasuna garrantzitu behar diguzue.

Ez dauka logikarik autobideak diseinatzea egunero kasik joan-etorriak ez dituzten lekuetarako eta inguru honetan N121 errepedea kolapsatua egotea kamiolen trafikoa izugarriagatik, langileen eguneroko joan etorriengatik (aunitz baitira, zonalde industrial batean bizi garela oroitarazten baitizuegu), eta hauei, gure bizilagunek hezkuntza eta osasun arazoak direla medio egin behar dituzten desplazamenduak gehitu behar zaizkie, zerbitzu hauek zentralizatuak daudelako. Guzi honi ez zaio lehentasunik ematen eta gero pazientzia eskatzen digute.

Miranda Jauna: bakarrik herri honetan, sei hilabetetan N121 errepedeak, 30 kilometroko zati bate-

an lau bizitza kendu dizkigu. Ez dira bakarrik izan, errepede honengatik heriotz aunitz izan baititugu Lesakan eta ez bakarrik gure herrian. Zonaldeko zenbat gazte eta langileren bizitzak eta proiektuak gelditu dira asfaltoan?

Zenbat gehiago behar dira zuek errepede honi lehentasuna emateko?

Miranda Jauna, ez guri eskatu eman ezin duguna, ez dauka guzietatik, Lesakan biktimak dauzkagu eta hauek dagoeneko zure gain daude.

**Deñe Abuin**  
Lesakako Onin taldeko zinegotzia.

### Lan istripuetako heriotzaz aski da

Duela hamabi egun Igantzian eta Dantxarriean, 2 langile lan istripuetan hil ziren, bat kamiolaria, eta eraikuntzan bestea, lanean ari zirenean. Pasa den asteartean, berriro ere, beste kamiolari bat hil egin da, kasu honetan N-121 errepedean.

Hildako honek izen abizenak dauzka, Francisco Javier Rodriguez, kamiolari badajoztarra. Dagoeneko 23 dira aurten Nafarroan lan istripuen ondorioz hil diren langileak.

Onartezina eta justifikaezina da hainbeste hildako gertatzea.

Horregatik berriro lan istripu bakoitzaren atzean dauden ardu-

radunak seinatu nahi ditugu, kasu honetan garraio-sektoreko zenbait empresari, zeintzuek baimentzen baitute langileek arrisku baldintzak jasatea, eta euren irabazi ekonomikoak hobesten dituzte segurtasunaren eta langileen osasunaren aurrean.

Hainbat dira lan istripuen atzean dauden elementuak: kontratuen behin-behinekotasuna; azpi-kontratazioa; autonomizazioa; langileen osasuna arriskuan jartzen duten lan erritmo izugarrien inposaketa... eta zehazki garraioetan gidariei eskatzen zaie ahalik eta azkarren zamalanak egitea, eta lanaldi bukaezinak pasatzen dituzte gidatzen eta presaka ibiltzen dira.

Kasu honetan Nafarroako administrazioa ere arduraduna da, lan baldintza hauekin eta N-121 errepedean dauden arazoekin ez bukatzeagatik Prentsan irakurri dugu Mirandak bortzirietako alkateekin bilduko dela arazoaz hitz egiteko, eta pazientzia eskatzen zaiela.

Langileoi bilera hori berandu iristen zaigu. Eta pazientzia ere, gutxi gelditzen zaigu.

Langileok, odoluste honekin bukatzeko, soluzioak exijitzen ditugu, eta soluzio horiek prekaritatearekin bukatzea lehenengoa da, eta lege eta neurri prebentibo guztiak betetzea bigarrena da.

**ELA, LAB, ESK, CGT, STEE-EILAS**

## OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra 2005-11-24

«Euskal Herriko dantzak ikasi nahi dituzten herriko haur eta gazte guziek lekua dute Tantarumairu dantez taldean. Batzuk argi dute bakar-bakarrak ikasi egin nahi dutela, emanaldietan agertu gabe, eta horiei ere uzten diegu». «Gurasoen lana ere hagitz garrantzitsua da. Emanaldiei buruz informatzen diegu, dantzarien arropak non eta noiz probatu behar dituzten... Herriko musika taldeak ere ezinbertzekoak dira».

**Garbiñe SARAROLA**  
Lesakako Tantarumairu dantza taldekoa  
D.Navarra 2005-11-24

«Gure bazkide gehienek ez dute behar bezalako aisialdirik, inguru honetan ez baitago zer egin handirik. Nafarroako Kutxaren dirulaguntzarik gabe, nolabait abendura bitarte alegatuko gara, gan den urteko dirua baitugu, baina heldu den urterako arazo aunitz izanen ditugu... Dirulaguntza emateko modua aldatu dutela erran daukute eta aurten ezinezkoa zela ematea. Taxian bakarrik hilean 130 euro gaten dira».

**Maria TAMAYO**  
Xauli ezinsu sikikoen taldeko arduraduna  
D.Navarra 2005-11-18

• 11 GALDERA LABUR •

**Urtean zenbat diru gastatzen duzu ileapaindegian?**

O, neregatik baltz lanbide hori ez zen izanen.

**Zer erran nahi zenieke ileak mozteko aholkatzen dizutenei?**

Aski dute izorratzea. Niri hala gustatzen zaizkit eta bakoitzak nahi duena egiten du.

**Zein da zuretzat gaur egun euskal talderik onena?**

Jotzen segitzen badute Anestesia. Baina bat baino gehiago badira, Duf, Kuraia...

**BKBO taldea hiru hitzez definitu behar bazenu?**

Kañeroa, lagunartekoa eta garagar-dozalea.

**Nahiago duzu ostatu ttiki batean aritu edo eskenatoki handi batean?**

Ostatu ttikiak dudarik gabe, futbol zelaiak ez ditugu oraindik betetzen eta nahiago dugu entzuletik hurbil jo.

**Nola ikusten duzu BKBOren etorkizuna?**

Aski ongi, beti entsaiatzen ari gara eta agian horiek egun batez fruituak emanen ditu.

**Uharte batera gitarra kenduta bakarrik joan beha bazenu, zer eramanen zenuke?**

Diskoak entzuteko tresna.

**Saratik kanpo bizi behar bazenu, non biziko zinateke?**

Amotzen behar bada (irriak)... Ez dakit, ez dut sekulan pentsatu. No-

nahi, ez zait badaezpada inporta. Nork irabaziko du Lau Terdiko pilota txapelketa?

Xalax.

**Urte Zaharra non egin behar duzu?**  
Bigarren aldikoz, aurten ere Euskal Presoen aldeko afaria eginen dugu eta pentsatzen dut gaua sukaldean pasako dudala laguntzen.

**Gidatzeko karneta noiz aterako duzu?**

Laster. Heldu den urtean... Aitxian galdetzen baitzenuen non biziko nintzatekeen, azkenean behar bada Kuban. Horrela han karneta erosten ahalko nuke.



**Xan URBISTONDO «TANAS»**  
Sarako BKBO taldeko gitarra jolea

**Alberto RETEGI**  
Altzate, 17 BERA ☎ 948 630 763  
**abokatua**

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TEL 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**DEÑE**  
Lentzeria  
Mertzeria  
948 637 514  
bera plaza, 8 LESAKA

**SAROB** SANDERS pentsuak  
**okindegia**  
Ezlagara, 41 - Tel. 948 630 888 - BERA

**LEGARRA**  
BERRIKUNTZA  
oposizioak prestatzeko  
liburuak ekartzen ditugu  
Egunero irekia  
Tel-Faxa: 948 637 030 - Alblastur, 9 - LESAKA

**ZJ**  
**Zalain**  
jatekua  
Hostala  
14 logela,  
bainu eta TBrekin  
Zalain 10 • Tel. 948 63 05 07  
Bera - Nafarroa

**Ituzia**  
Iorezaintza  
**Fermin Marijorena Laralde**  
☎ 666 407214 • 948 631199 • BERA

## BORTZIRIAK



ARTIBOIKO

Gaur arte 124 Ziurtagiri adostu ditu Kontseiluak Bortzirietako Mankomunitatean eta akordio honen berritzairekin ziurtagiri hauen kopurua gehitzen joatea espero da.

## Elkarlan hitzarmena berritu du Kontseiluak Mankomunitatearekin

XX. mendeko margolari handienetakoa izan zen eta Berako

ttipi-ttapa

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak hitzarmena berritu du Bortzirietan. 2004 urtean onartu zuten Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Kontseiluak elkarlanean aritzea. «Hitzarmen honen bidez Bai Euskarari Akordioa eskualde honetan garatzea zen helburua» azaldu du Kontseiluko Idazkari Nagusiak, Xabier Mendigurenek.

Gaur arte, 124 Ziurtagiri adostu ditu Kontseiluak Bortzirietako Mankomunitatean eta «Akordio honen berritzairekin Ziurtagiri hauen kopurua gehitzen joatea espero da» jakinarazi du Mendigurenek.

Dinamika honen helburua da erakunde, enpresa eta elkarteetan eragitea beren hizkuntza-normalizazioa erdiesteko. Azken urteetan eskualdeko euska-

ran Mankomunitateak egin dituen hainbat lan lido indartzera dator Bai Euskarari Akordioa. Akordio honen berritzearen ondorioz 1.800 euroko ekarpena egin zaio Kontseiluari. «Pozgarria da guretzat elkarlan honen aitzinera egitea, aurrean burututako lana hagitz emankorra izan baita» jakinarazi dute Mankomunitateko arduradunek.

Prozesu hau eskualdeko euskalgintzarekin

elkarlanean abiatu zen, eta horrela segituko du. Hain zuzen ere, honakoek osatzen dute Bortzirietako euskalgintza: IKA, EHE, Berako Labiaga eta Lesakako Tantarumairu ikastolak, eta Mankomunitateko batzordekideak, tartean Berako Toki Ona Institutua eta Ricardo Baroja ikastetxeak, Igantziko ikastetxe publikoa, Lesakako Irain eta Etxalarko Landagain ikastetxeak.

## KULTURA

## Euskal Kantu txapelketaren finala egin zen Donezteben

ttipi-ttapa

Azaroaren 19an egin zen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finala. Taldeetan Gabari izan zen irabazle eta Aranoko Ansa ahizpak bigarren. Bikoteka, Amets eta Lur Larrazak eskuratu zuten lehen postua eta Iker Villanueva eta Edurne Erreak bigarrena. Azkenik, bakarlarien artean, faborito nagusia, Maider Ansa aranoarra izan zen irabazle, Izaro Saizaren aitzinetik. Bertzelako sariak ere eman zituen epaimahaiak. Txapelketan lehen aldiz parte hartzen zutenei zuzendutako saria Nerea Gonzalez eta Nerea Orejarentzat izan zen. Nortasunaren saria Izaro Saizarrentzat izan zen. Mikel Goñik irabazi zuen sormenaren saria, Gartzot kantuan jarritako sentimentuarengatik saritu zuten eta Intsabalea taldeak talde lanaren saria eskuratu zuen.

**ERROTAZAR**  
harategia  
Bertako produktua  
Etegara, 3  
Tel: 948 630 088  
BERA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko Istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**ERREKALDE**  
OSTAIA  
PLATER KONTRASTAK  
PINTXAK  
BOKATIAK  
TTAPA: 948 630 169 6204

**BERA**

## Ondarea babesteko zentrorako dirulaguntza hartu du Udalak

Errotaberria moldatuko da eta Turismo Bulegoa ere han jarriko da

**Amaia eta Ainhoa**

Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo Sailak 37.680 euroko dirulaguntza emanen dio Berako Udalarari Ondarea Babesteko Zentruko proiektua errealizatzeko, aurrekontuaren %90a hain zuzen ere. Gobernuaren laguntza hau Turismo-rako Azpiegiturak sortzeko delalidiren barnean sartzen da. Plan honenkin, taller eta programa ezberdinen bidez, garai bateko eskulanak mantendu eta berreskuratu nahi dira: ehotzea, forja eta zerralegia bertzeak bertze. Udalak Errotaberria zaharberri nahi du zentru hau hortxe kokatu ahal izateko. Errotaberria errota izana da eta sagardorako dolarea, sufegia eta egurrarendako zerra zituen, aprobetxamendu hidraulikoaren bidez funtzionatzen zuena. Egoitza berean, gaur egun Julio Caro Baroja Kultur Etxean dagoen Turismo Bu-



Argazki: Xab HARRIAGUIE

### Ikaspilota Eztegaran

Berako Labiaga eta Lesakako Tantarumairu ikastolako ikasleak Eztegaran pilotalekuan bildu ziren azaroaren 23an, pilotarekin lotutako jokuak eta partidak jolastera. Kirol eta jolas honen berri ikastea da ekitaldiaren helburua.

legoa ere egonen da. Juan Ramon Corpas Mauleonek, Kultura eta Turismo Kontseilariak, eta Helena Santestebanek, Berako alkateak, azaroaren 16ean proiektuaren finantziaziorako hitzarmena sinatu zuten. Dirulaguntza hau bertze batekin lotuta dago, Nafarroa-

ko mendialdean turismoa bultzatzeko helburua duenarekin. 71.200 euro jasoko du Udalak Bidasoako Ur-Bizi Piraguisimo Zentrua sortzeko. Xubizabalea para-jean eraiki nahi dute zentrua eta egoitza hori piraguak gordetzeko, botikinarako, aldagela eta bainugelendako erabi-

liko da. Proiektu honen helburua kirol honen praktika bultzatzea da eta aldi berean, herriko lekuri politenetako bat izanik, erreka bazterra apainduko da eta turismo produktu berria bultzatuko da. Haurrendako parkea eta piknik gunea ere izanen dira inguruan.

**FLASH**

### Areto Futboleko Gabon Kopa

Toki Ona Kiroledegiak antolatuta, abenduaren 19an hasi eta 30ean bukatuko da areto futboleko Gabon Kopa. Izena emateko epea abenduaren 12tik 16ra bitartean luzatuko da.

### Jostailu egokiak nola aukeratu?

Haurrek aunitzetan daukaten adinerako ezegokiak diren jostailuak eskatzen dituzte eta gurasoek ez dute horren berri. Gai horren inguruan bi ekitaldi antolatu ditu Bortziritako Euskara Mankomunitateak. Abenduaren 5ean "Nola aukeratu jostailu egokiak" hitzaldia antolatu du, liburutegian 19:00etan. Abenduaren 5 eta 6ean Kultur Etxeko Erakusketa Gelan jostailuen erakusketa informatiboa izanen da 16:00etatik 19:00etara.

### Isidoro Fagoagan ekitaldiak

Musika Eskolan piano audizioa izanen da abenduaren 13an, 17:30etan. Abenduaren 15ean, akordeoilariek beraien saioa eskainiko dute 18:30etan. Gabonetako Kontzertua abenduaren 21ean eskainiko dute Kultur Etxean 17:30etan.

**BERA** Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratol xagutzoz garbitu nahi baduzu, deituz Termita eta Pipien tratamenduak

**GOBEKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 630 155 (Alkaiaga Industrialdea) **LESAKA**

**ANSONEA** Jaletxea

Eguneroko menua eta asteburutan menu bereziak

Ostatua bere terrazan estaliarekin eta ziberkafetegia

Foruen Plaza 1 • 948 631 155 • BERA

**PAGOLA** EMBUTIDOS artesanos desde 1940

Altzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

948 631 462 Altzate 1 • BERA

**Xireti**

arropak • maindireak mantak • nordikoak toallak • kortinak alfombrak

**Goya** Bera

Altzate, 5 • Tel: 948 630 080

## LESAKA

# 148azienda aurkeztu ziren Bortzirietako Feria egunean

laz baino behi eta zaldi abere gehiago eta ahare guttiago izan ziren

Aitor AROTZENA

148azienda aurkeztu ziren Bortzirietako feria egunean, iazko 97ak baino dexeite gehiago. Gehienak zaldikoak izan ziren, 114 zaldi, behor eta pottoka eraman baitziren plazara, 24 behi eta 10 ahare.

Behi holandesarkezen aurkeztu eta hutsen gelditu ziren sariak. Suiza arrazako behietan, 190 eta 160 euroko lehen bi sariak Berako Jose Antonio Igoak eskuratu zituen. Hirugarren saria, 100 euro, Iriberriko Jon Muñoak eraban zuen. Haragitarako behietan, lehenbiziko saria eta txapela Luis Olaetxeak eraman zuen Makukobordara. Bigarren eta hirugarren sariak Iriberriko Jon Muñoarentzat izan ziren.

Zaltaberetan, 125 euroko lehen saria eta txapela Berako Juan Antonio Prietok irabazi zuen. 95 euroko bigarren saria Arantxeneko Javier Almandozek es-



Jose Antonio Igoa beratarrak irabazi zuen behi suizoaren lehen eta bigarren sariak.

kuratu zuen eta 50 euroko hirugarren saria Igantziako Aitor Beginrentzat izan zen.

Aharietan, 35 eta 25 euroko lehen bi sariak Berako Jaime Etxegarrentzat izan ziren. Hirugarren saria Etxalarra joan zen, Ihintzekobordako Josetxo Ariztegiarentzat. Eguraldi ho-

tza bazen ere, euriak arratsaldera arte errespetatu zuen feria eguna. Plazako aparkalekuko karpan, bertako produktuen azoka ere izan zen, iaz bezala.

**AJOARRIERO ONENA, LESAKAKO GAZTIK-ENA**  
Feria bezperan, asteazkenean, Beti Gaz-

te elkarteak antolatzen duen ajoarriero lehiaketa ere egin zen. Zortzi bikotek parte hartu zuten eta Lesakako Gaztik taldeko Imanol Lopez eta Imanol Zubietak suertatu ziren irabazle. Heldu den urtean Beran eginen den Nafarroa Oinezan aurkezpena ere egin zen.

## Olentzerori buruzko jardunaldiak

Olentzero pertsonari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Udalak, Eusko Ikaskuntzaren folklore sailaren laguntzarekin.

Abenduaren 2an, 19:00etan *Olentzero eta herri literatur* sosalaldia eskainiko du Euskaltzaindiako Adolfo Arejitak. Ondotik, Mikel Aranburu Neguko Solstizioaz arituko da eta Antxon Agirre Sorondok *Olentzero: Historia eta Etnografia* sosalaldia emanen du.

Abenduaren 10ean, Patxi Labordak «Olentzeroren bilakaera» sosalaldia emanen du 11:30etan. Eusko Ikaskuntzako Josu Larrinagak Emilio Xabier Dueñasek ere olentzerori buruzko jakin-garriak emanen dituzte. 13:00etan Ansorenak Olentzeroren Melodia eskainiko du eta gero Fernando Mikelarenak solastuko du.

Abenduaren 17an, 11:30etan Lesaka eta Oartzungo Olentzerotik arituko dira Rafael Eñeterreaga eta Jose Mari Mixelena. Gero, mahaingurua eta bazkaria izanen dute.

KIROL ETA MODAKO ARROPA DENDA IREKI BERRIA !!

Astelehen, 7  
behea 52  
LESAKA  
948 538 110

## ETXALAR

# 43 dozena uso eskas hartu dituzte Usategietan aurtengo sasoian

Usategien historian bertze bi urte bakarrik ezagutzen dira hain txarrak

Joseba eta Nerea

«Nik ez dut aspaldi hain uso-sasoi motelik ezagutu. Bertze urte bat edo bi bakarrik izaneri dira egundaino hain kopuru tikia hartu dugula». Horixe erran digu Gerardo Danboriena usazaleak sasoiaren balorazioa eskatu diogunean. Kontuak ez dira aunitz aldatzen. Historia errepikatu egiten da. Aspaldiko urtetako marxari segituz, aurtien ere hagitz balantze txarra egin dute Usategietan uso-denboraldia akabatzean. Urriaren lehenbizian hasita, joan den azaroaren 20 arte iraun du aurtengo denboraldiak. Egun pare bat nahiko onak izan baldin badituzte ere, orokorrean arront txarra gertatu dela aitortu digu Gerardo: «Eguraldia ez dugu batere lagun izan. Haizegoa izan dugu egun gehienetan eta horrela ezin da lanik egin». Usoa pasatu, pasatu da. Joan den urtean baino gehiago gainera. Baina



Argazkia: JOSEBA OLAGARRI

Sasoi eskasa izan da aurtengoa usazaleentzat.

haizegoarekin itsaso aldera joan dira eta larmendiko gainean bakanaka batzuk bertzerik ez dira gelditu.

Edozein moduz, urteroko ohiturari segituz, abenduaren 3an, San Francisco Jabier Egunean, afaria aginen dute Etxalarko usazaleek bertze Usategietako langileekin batera. Gehienek uso-sasoi txarra pasatu dute baina elkarren arriroan denboraldia

gustura akabatzeko modua harrautuko dute.

### Xorroxin irratia Landagain eskolan

Urtero bezala, Xorroxin irratia izan dute Landagain eskolan. Aste honetan hiru egunez aritu dira eskolako haur guztiak irratiesatari lanetan. 11:15etan hasita eguerdirarte, gisa guztietako saioak eskaini dituzte

herriko entzuleentzat. Ipuinak, abestiak, lehiaketak, antzerkiak... ingelesez ere hainbat gauza egin dituzte. Bi gonbidatu izan dituzte. Asteartean Gerardo Danboriena usazalea eta ortzegunean Xabier Ariztegi "Santxin" aizkolari gaztea. Irakasleek erran digutenez hagitz ongi joan dira irratia hiru egunak. Ikasleek ilusio eta gogo handiz hartzen dituzte urtero.



## PERTSONAIA

Patxi ELIZALDE

### Hamazazpi urte Usategian

Ez da erraxa usazaleen lana. Ordu aunitz eta pazientzia aunitz eskatzen duen lana da. Hagitz lotua. Eguraldi txarra denean gogorra egiten da egun osoa hain goian pasatzea. Eta aunitzetan bakarrik, gainera. Hala ere, zailtasunak zailtasun, badira usazale historiko batzuk sekulako urte pila daramatenak lan horretan. Horieta bat da Patxi Elizalde. 1988. urtean hasi zen Usategietan lanean 36 urteko mutil hau, kontaktzen duenez "nahiko ustekabea". Lana ikaragarri gustatzen zaiola aitortzen du eta egun batzuk hagitz gogorak izaten badira ere, arront gustura aritzen dela. "17 urte egin ditut eta prest nago bertze horren bertze egiteko ere". Animo bada Patxi, eta segi hortan!

**HERRIKO**  
GATATE - JAYEUSA

Arantzako, 15 • 48121 M. A.  
Tasa • 4078824

**TOLDOAK** salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa  
**MOSKITERAK-PERTSIANAK** motorizatuak  
venecianak-PVCzko **LEIHO** eta **ITXITURAK**

Tel-Fax: 948 631 003 - Bidasoa, 66 behea - BERA

**Ginko**

M. Karmela Tolosa

habeleto orlatua  
arbolak landatu edo lekuz aldatu

31760 Etxalar (Nafarroa)  
Telefonak:  
917 350 025 - 647 694 867  
e.ginko.gomutillorua.es

## ARANTZA

# Abenduaren 17an lau antzezlan taularatuko dituzte eskolako ikasleek

Joan den ortziralean, Bilbora ateraldia egin zuten hirugarren zikloko ikasle eta irakasleek.

Nerea ALTZURI

Urteko azken txanpan gaude. Azken hila-betean sartuta, ohiko ekitaldiak hurbil dira... eta ez daitezela ohitura horiek sekula gal. Herriko eskolako berrietan murgilduta, olentzeroak eta antzezlanak gero eta hurbilago ditugu. Ohi bezala, eskolako lagunek egiten dituzten olentzeroekin batera, herritar orok badu aukera ikazkinaren irudia egiteko.

Bertzalde, aspaldiko usadioak segitzen du herrian. Aurten ere, eguberriak baino lehen lanak antzeztuko dituzte eskolako lagunek. Lau antzezlan prestatzen ari dira eta abenduaren 17an, jendaurrean erakutsiko dituzte eskolako gimnasioan 16:30etan. Larunbat horretan

jende guziari erakutsiko dira lanak. Egun batzuk lehenagotik ordea, abenduaren 14an, asteazken goizean, Igantzi eta Etxalarko eskolako lagunak aitzinean aktore lanak egiten dituzte. Beraz, hortxe urteroko hiltzordua gure aktore gazteenen trebeziarekin gozatzeko.

## Aste Xuria

Bertzalde, bi urtero behin eskolako lagunek elurretara joateko aste-bete baterako izen ematen dute. Izan ere, hirugarren ziklokoek eta herriko eskolako kasuan, DBHkoek ere, urte batean ikasketa bukaerako bidaiak antolatzen dute, eta hurrengoan, eskiatzera joaten dira. Bi ekintza hauek txandaka egiten dira. Aurten,



ARANTZA

Azaroaren 13an, Agoitzen Nafarroako kantu txapelketaren saioa egin zen. Hemezortzi kantari aritu ziren, tartean, Amaia Telletxea aranztarra Fermin-txo Gartxitorena berroetarrarekin bikote moduan aurkeztu zen, iaz bezala. Amaiak eta Fermintxok, Oskar Estanga, Iñigo Aspurtz eta Miren musikariak laguntzaile izan zituzten, gitarrarekin, soinuarekin eta txeloarekin. "Hesiaren gibelean" kantua taularatu zuten, Ganbara taldearen musika erabiliz, eta hitzak beurek asmatuta. Ceuta eta Melillako hesiaren gaia hartu zuen kantua. Jendez gainezka zegoen aretoan erakustaldi polita egin zuten, eta kontent gelditu ziren egindako lanaraken, Doneztebeko Bordatzoko finalerako txartela lortu ez arren.

Aste Xuria programaren bame, Bortziritetako gainerako hirugarren zikloko ikasleekin batera herriko gazteak, Otsagira martxoaren bortzetik 10era joanen dira. Beraz, oraindik, herriko mendikaxkoetan elurra ikusten ari bagara ere, neguarekin batera, eskiatzera joateko grina areagotuko da.

Ateraldiekin segituz, joan den ortziralean, Bilbora ateraldia egin zuten hirugarren ziklokoek. Bilboko lekuriak famatuena eta batez ere,

gehien entzuten direnak ezagutu zituzte: zubia, Guggenheim museoa eta metroa. Eguna ongi pasatu zutelakoan gaude. Behintzat, Arantzeta herri tiketik aunitzez haundiagoa den Bilbora alde ederra nabaritu zuten.

## Bataioa eta Urrezko Ezteiak

Joan den azaroaren 23an Iturzenbordako Luis eta Rosariok berrogeita hamar urte bete zituzten ezkondurik. Ospakizuna, joan den

igandean egin zuten, elizkizuna eta Aterpen bazkaria eginez. Urrezko ezteiak familiarrean ospatu zituzten. Ekarrekin urte aunitz gehiago pasa ditzatela bada, zorionak!

Bertzalde, azaroaren 13an, igandearrekin Irati Azpiroz Errandonearen bataioa izan zen. Joan den uztailaren 7an sortu zen Irati, Unai Azpiroz eta Mirian Errandonearen alaba. Elizkizunaren ondotik senitarteko bazkaria egin zuten.

**Jose I. Gonzalez Enguita**

Pintura lanak orokorrean

948 235 400  
948 830 937

Polvorada 46 - 1. planta  
31700 BERA.

**USOA**  
nekezari kooperatiba

ganadua erantzat pentaurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**GOZZALDE**

31700 BERA

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA

IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

Gasolla etxera eramaten dugu

Tel: 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

**STYLING**

Toailak-Manteleriak-Oheko maindreak  
Eskolako haurren mantalak etab...  
bordatzten ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blus  
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin  
bordatzten ditugu

Ituri Pl. Berri 4.a eta Iñaki berriko eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 487

**bortz IRUDI**  
bortziru@telefonica.net

KARTELAK - KAMISETAK - BISERAK - TRUSKERDIAK (bela daren marra - 200mm/ok)  
FOTOKOPIA DIGITALAK - KOLORETAN TXURI BELTZEAN - PLANOAK  
ENKILADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEPTEGIA - BULEGO MATERIALA  
DISEINU GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - ERROTULOAK - IMPRENTA

Etegora, 26 Eskumeloa Beheo D - BERA - Tel/Fax: 948 631 521

## IGANTZI

# Heldu den astean izanen dira Kultur Egunak

Eskulan erakustaldia antolatu du Biltokik abenduaren 8rako

Oskar TXOPERENA

Igantzi Euskara Batzordeak antolatuta (abenduaren 8ko ekitaldiak Biltoki elkartearekin batera) heldu den astean Udazkeneko Kultur Egunak izanen ditugu.

Abenduaren 7an, asteazkenean, Roberto Casadorekin Ganbara musika aditzeko aukera izanen da elizan 20:45etan. Ekitaldi hau Udazkeneko Biraren barruan dago.

Abenduaren 8an, ortzegunean, 11:00etatik aitzinera eskulanei buruzko erakusketa izanen da frontoian. Go-

goratuko duzueenez, iaz artzaintza eta bere produktuak izan ziren egun honetako bestaren protagonistak. Aurtengoan, eskulanak izanen dira eta Biltoki elkarteak ari da dagoeneko egun horretan ikusiko ditugun lanen bilketan. Egun eta leku berean, 12:30etan bizkotxo lehiaketa egingen da eta 18:00etan txokolate beroa eta bizkotxoak banatuko dira frontoian.

Abenduaren 9an, ortziralean, 16:00etan frontoian haurrentzako herri kirolei buruzko tailerrak egingen dira Kulkirekin.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

### Mendialdeko Abesbatzen IV. Topaketa

Lau abesbatza bildu ziren kantatzera Igantzi Nafarroako Mendialdeko Abesbatzen IV. Topaketan. Bete-bete egin zen eliza Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatza, Etxarri-Aranatzekoa, Giltzarri eta Igantzi Abesbatzaren emaldia entzuteko. Bina kanta abestu zituzten banaka eta bertze lau denak batera. Gainerako abesbatzak Donezteben elkartu ziren eta bestari amaiera emateko Sunbillan afaldu zuten elkarrekin. Argazkian lau abesbatzen ordezkariak banatutako oroigarriekin.

Larunbatean, azkenik, Gaizka Sarasola eta Maite Mendegia ipuin kontalariak «Euritako xoria» ipuina kontatuko dute Baratzondon, Leku berean, 21:00etan, Teresa Lopez de Muniainek «Ugartzun baten antsiak» antzezlanaren aurkezpena egingo du.



Edredoi-azal nordiko eta edredoietan espezializatuak.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

edredoi nordikoak • edredoi-azal nordikoak • mantak • maindireak  
Ohe estalkiak • mantelak • albornoak • toailak • kuxinak

Tel: 948 230 634 • Tafalla, 13 • IRUÑEA

## DONEZTEBE

# Bi egunez egingen ditu Errekak Mendiaren Eguneko ekitaldiak

Patxi Zamorano eta Zarbo Ibarrolaren proiektzioa abenduaren 16an

## ttipi-ttapa

Erreka Kirol Elkarteak urtero bezala Mendiaren Eguna antolatatu du, Doneztebeko Udalaren laguntzaz. Aurten, halere, bi egunetan izanen dira ekitaldiak. Has-teko, abenduaren 16an, ortziralean, Patxi Zamoranok eta Zarbo Ibarrola doneztebarrek, McKinley mendira egindako igoera proiektatuko dute eta han biziutako az solasteko aukera izanen da, 20:00etatik aitzinera, Leku-Eder zinemari. Larunbatean, abenduaren 17an, goizeko 7:30etan mendira irteera izanen da Leurtzako Zirkora, urtero egingen den bezala, Errekak Bonozorrotz mendian duen buzoia bisitatuz. 13:00etan mendizale-poteoa izanen da eta ondotik bazkaria Kasino elkartearen. Interesatuak Titi ostatuan eman behar dute izena. Arratsaldean, 19:00etatik aitzinera, Itaki Otxoa de Olzak «Bajo los cielos de Asia» proiektzioa



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

## Aziendak plazaratu eta saldu egin ziren feriatan

Goiza goibel hasi bazen ere, eguerdi aldeko eguraldi polita izan zen feria egunean. Horrek, hainbat bisitari animatu zituen eta karriketan animazio ederra izan zen. Azienda tratanteak ere gustora zeuden. Matxiketako Merkatu Plazan behi aunitz, zaldi eta behor talde bat beren kumeekin eta ahare bat edo bertze ageri ziren, gehienak Pedro Jose Martin eta Victor Mendiburu herriko tratanteek eramanak. Saldu ere ongi saldu omen zen: Aretzea zuten behi pirenarikak 1.200 eta 1.500 euro artean eta behi suizak 1.100 eta 1.200 euroren artean. Elizondon baino prezio hobexegoan saldu zela aipatzen zuten tratanteek.

emanen du. Otxoa de Olza «Nafarroa 14 zortzimilakoak» proiektua-

ren barrenean dago sartua. Honetaz guztiaz solastuko du mendizale

nafarrak Donezteben emanen duen proiektzioan.

## FLASH

## Abenduaren 10ean Eriz Magoa zinemari

Burrumba Kultur Taldeak antolatuta, abenduaren 10ean, larunbatarekin, Eriz Magoaren ikuskizuna izanen da Doneztebeko zinema aretoan, 18:00etan.

## Guraso eta haurrentzat negurako lekua

Aitzineko alean aipatu genuen Doneztebeko gurasoak sinadura bilketa kanpaina egiten ari zirela, eguraldi txarra egiten duenean haurrekin jostatzeko leku eroso eta goxoa eskatuz. Udalak eskari honi erantzun egin dio eta zinemako behetian lokala egokitu du.

## 150.000 euro erabili dira futbol zelaia moldatzeko

Udalak 150.000 euroko inbertsioa egin du eskolako futbol zelaiaren egoera hobetzeko. Mariezcurrrena eraikuntza enpresak egin ditu lanak. Lehenik lurra altxatu eta drenatze sistema egokia jarri zuten. Lehen belarrezko zelaia baldin bazen ere, orain, harea eta lur xehea jarri dute. Gainera, lau argi-dorre jarri dituzte, gauz erabili ahal izateko.

**LABEZAR**  
C/ 948 631 076 • BERA

**BEINTZAKO OSTATUA**  
C/ 948 450 014  
BEINTZA-LABAEN

**ERRETEGI - KANTONKAR - TIGERDOSTEN**  
**ELIZONDO**  
Tel: 626 552 452  
ASADOR • SIDRERIA  
Orain Donezteben ere, Santa Luzia Sean

**Pitti eskabazioak**  
Tfnoa:  
616 513 491  
Mendiakoa etxea, 34  
ZUBIETA

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRIAK  
Bera: Tfnoa: 948 630 735 - 607 494 781

## MALERREKA

# Ipuin eta bertso-paper lehiaketa antolatu du Euskara Batzordeak

Lanak abenduaren 12an bilduko dira



### ttipi-ttapa

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna bulkatzeko haur eta gazteendako bertso-paper eta ipuin lehiaketa antolatu du. Bi modalitate izanen dira: Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleak, 8 eta 10 urte bitartekoak alde batetik, eta Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailakoak, 10 eta 12 urte artekoak, bertzetik.

Parte hartu ahal izateko, jatorrizko lana euskaraz idatzi behar da, gai librean. Egile bakoitzak sail berean lan bakarra aurkezten ahal du. Ipuinen saillean aurkeztutako lanek gutierrez bi orrialde eta gehienez sei izanen dituzte. Bertso-paperak gutierrez lau bertso-ahapaldi eta gehienez zortzi izanen ditu. Lanak abenduaren 12an, astelehenarekin, bilduko dira.

### SARI BANAKETA ETA TXOKOLATADA ABENDUAREN 21EAN DONEZTEBEKO ESKOLAN

Sail bakoitzean sari eder bat banatuko da. Sariaz gain, sarituen lanak ttipi-ttapan argitaratuko dira eta parte-hartzaile guzietan opari txiki bana jasoko dute. Abenduaren 21ean, asteazkenarekin, sari banaketa eginen da Doneztebeko eskolan 17:00etan eta parte-hartzaile guzietan txokolatea eskainiko zaie.



> Gaur bertan bada, biharko Plana zein izanen duen argi duenik

**Rural Kutxaren Pentso Planekin** gaur bertan bada jakiterik zein izanen den zure geroa. Zure ongizatea. Zure lasaitasuna. Zure bizitza. Hauta ezazu zure etorkizunari eta etxekoenei begira hobeki egokitzen den Plana. Eta goza ezazu gaurtik hasita.

- Plan aukera zabala zure beharretara egokitzen direnak.
- Aurrezki fiskala %44a bitartekoa.
- Errentagarritasun erakargarria, Espainia mailan lehenengo postuetan jartzen gaituena.
- Malgutasuna ekarpenetan.
- Mugikortasuna Plan batetik bestera aldatzeko, gainkostunik gabe.

RGDinero • RGUno Renta Fija  
 RGDos Mixto 40 • RG Tres Mixto 75  
 RGCuatro Renta Variable • RGCinco Mixto 20



Abenduaren 31 bitarte eramazazu opari eder bat zure Plana kontratatzerakoan

www.ruralvia.com

Zatuz Rural Kutxara eta biharko Planik hoberekin aterako zara

> Zure etorkizuna gure planetan dago



## SUNBILLA

# Herriko hiru talde aurkeztu dira futbito txapelketan

Ulibeltzak elkarteak abenduaren 10ean egingen du urteko bilera

Jaione O. A.

Lehen aipatu bage-nuen ere, bertze urteetan herritik bi talde aurkeztu ziren futbito txapelketan, baina aurten Ulibeltzak elkarteak taldea atera nahi zuela eta jendea bila aritu zen, baita lortu ere. Aurten lehenengo aldiz bi maila bereizi dira txapelketa honetan eta gure herriko hiru taldeek bigarren mailan jokatzeko dute, Aitziber Arretxeak ateratako argazkietan dituzue Ulibeltzak, Sasoi Eskabazioak eta Menditxuri taldeen argazkiak eta bakoitzeko partaideak. Mendi Txuri eta Ulibeltzak taldeek, hau idazterakoan jokatutako bi partidak galdu dituzte. Sasoi Eska-

bazioak taldeak atsedena izan zuen lehen aste hondarrean, baina bigarrenean aisa irabazi zuen.

## Olentzerorako entsaioak

Poliki-poliki badatoz Eguberriak ere eta horrekin batera egun horietako prestakuntzak hasi beharra. Horrela bada, olentzero egunean ibilaldian ateratzeko entsaioak abenduaren 2an hasiko dira, ortzira lehen, beheko eskolan 16:30etan.

## Ulibeltzak elkartearen bilera

Abenduaren 10ean bilera izanen dute Uli-

beltzak elkarteak bazkideek, 19:00etan elkartearen egoitzan. Solastu beharreko gaien artean hauek dira garrantzitsuenak: bazkide berrien sarrera, urteko aurrekontua eta bertzeak. Oraindik ere norbait Ulibeltzako bazkide egin nahi badu, abenduaren 10a baino lehen erran beharko du eta elkarteak zuzendaritzatik jakitera eman dutenez, erraztasunak emanen zaizkio sartu nahi duten bazkide berriei. Egun horretan bertan, bilera-aren ondotik Ulibeltzak mendi taldekoek afaria izanen dute, denboraldi-ri bukaera emateko. Mendi taldean federatu nahi duenak Vidal Ibarri erran diezaiola.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrekak S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

**betiko**  
P.V.C eta aluminio aroztegia

Ordoki Industrialdea, 31713 Arizkun (Nafarroa)  
Tfnoa: 948 453 259 • Faxa: 948 453 423  
e-posta: betikopvc@teleline.es

### Estalpe Etxiak



**PVC eta ALUMINIO**arekin  
lan egiten dugu



Betikon era guztietako  
itxierak egiten ditugu  
kolore desberdinetan:  
haritza  
piñua  
kaoba

### Pertsianak



**Fabrikanteak  
garenez  
preziorik  
onenak  
eskaintzen  
ditugu**



Leihoak eta  
kontraleihoak



Kolorezko  
kontraleihoak



**ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE • 948 453 259 telefonoan  
edo bisitatu gure erakusketa**

## ERREPIDEAK

# N-121A errepidea 2009rako moldatuko dela hitz eman dute

Nafarroako Gobernuak horrela adierazi die Bortzirietako alkateei

ttipi-ttapa

N-121A errepidean igantzi eta Endarlatsa bitarteko lanak 2009. urterako akautuak egonen direla hitz eman zuen Alvaro Miranda, Nafarroako Gobernuko Herrikan, Garraio eta Komunikabideetako kontseilariak. Gisa honetara, Endarlatsa-Behobia zatia egiten den denbora berean egiten da Nafarroako zatia ere. Horrela jakinarazi zien Bortzirietako alkateei, azaroaren 21ean Iruñean egindako bileran. Lanak egin bitartean, istripu kopurua murrizten saiatzeko hainbat neurri ere proposatu zituen. Alde baterik, seinalizazioa eta foruzainen presentzia handituko da behinola errepide honetan. Bertze aldetik, Frantziara bidean doazen kamioiak Nafarroako Autopistatik eta Leitزارango Autobidetik bideratzen saiatuko dira. «Aholkua izanen da, ez debekua. Debekatzeak



ARGAZKIA: XAN HARRUAGUIE

Azaroaren 21ean Iruñeko ordezkariekin bildu eta biharamonean prentsurrekoa eskaini zuten Lesakan Bortzirietako udal hautetsiek.

abantaila baino desabantaila gehiago izan ditzake» adierazi zuen Mirandak. Horretaz gain, zenbait lekuetan aitzintzea debekatuko da eta abiadura, orduko 90 kilometrorra mugatuko da. rradar finkoa ezartzea ere eskatuko zaio Trafiko Zuzendaritza Nagusiarri. Zenbait bide zati moldatu ere egiten di-

ra. Behin behineko neurri hauek idatziz aurkeztu zituen kontseilariak.

«BAIKORTASUNA, BAINA PRESIOA JAUTSI GABE»

Bortzirietako alkateak baikor azaldu ziren bileraren ondotik, nahiz eta neurri hauek lehenago hartu behar zirela gogorarazi. Halere,

biharamonean, egindako prentsurrekoan adierazi zuten, «behin behineko neurriak idatziz hartu ditugu, baina errepidea 2009rako moldatuko dela hitzez bakarrik. Ea oraingoan hitza betetzen duten». Alde horretatik, hautetsiek eta herritarrek presioa egiten segitu behar dutela azpimarratu zuten.

## N-121An hil da Nafarroako errepideetan hildakoen %15a

Hau idazterakoan 83 hildako izan dira aurtien Nafarroako errepideetan. Horietatik hamahiru N-121A errepidean hil dira, gertatutako hamaka istripu larrienetan. Igantzi eta Endarlatsa artean lau lagun hil dira. 1 Sunbillan, Zozaian 3, Ultzaman 2, Arraitzen 2 eta Etulainen 1. Baina hildakoaz gain, hainbete zauritu utzi ditu errepideak. Kontseilariak eta Bortzirietako alkateak bildu ziren aste berean, Elizondoko gazte bat zauritu zen Etxalarren eta Ingalaterrako kamioi gidari bat San Migelen.



ARGAZKIA: JON ALTZUIGUREN

Azaroaren 23an gertatu zen N-121Ako azken istripu larria, San Migel inguruan.

## MALERREKA

## Udal liburutegia ireki dute Donamarian

ttipi-ttapa

Azaroaren 26an ireki zen Donamariako udal liburutegia eta hori ospatzeko afaria egin zen Ostatuan. Herriko Ebeko lehen solairuan izanen du egoitza eta liburu eta aldizkariak gain, Internetera ADSL sarbidea duten bi ordenagailu izanen dira, baita telebista ere. As-telehenetik ortziratera, 18:00etatik 20:00etara zabalik izanen da eta Mirian Mindegia Grazena izanen da arduraduna.

Liburutegia Donamariako udalak bultzatutako zerbitzua da eta ez da Nafarroako Liburutegi Sarearen barnean izanen. Cedema-Garalur elkarteak %80ko dirulaguntza eman du liburutegia moldatzeko.

## Eratsungo San Millan kalea moldatzeko laguntza

Nafarroako Gobernuak 169.086 euroko dirulaguntza eman dio Eratsungo Udalari 2005-2008 Hirurteko Azpiegitura Planaren barruan, San Millan kalea zolaberritzeko. 2.450 metro koadrotan ormigoia emanen da eta espalioetan harri gorria jarriko da.



# Lur

d i s k o t e k a

www.lurelizondo.com

abenduak 02

LUR D JOTAK

Qurtaberna 00:45



abenduak 03

# HAMLET

12€

01:00

abenduak 05

Asgarth

ondoren DJ'ak

HEAVY METAL 00:45

abenduak 07

LUR D JOTAK

ondoren DJ'ak

abenduak 09

DESOREKA

HARDCORE-FUNK 00:45

abenduak 10

BESTA BRASILDARRA

# BRASIL

PANDEIRO  
BATUKADA, BRASILEIR@S...

12€

01:00

+ konsumizioa

abenduak 16

LUR D JOTAK

Qurtaberna 00:45

abenduak 17

# kenzazpi

12€

01:00

www.lurelizondo.com



# Eguberrietan zato



**zerriak eta eguberri on!**

**MERCHE**  
MODA HOMBRE

Sempio Mujika, 11 - 20302 IRUN - Tel: 943 612 626

**CAPELETTI**

Mendibil Merkatal Zentrua  
20302 IRUN • Tfnoa: 943 624 672

**moda**

**PREMAMA**

*Estilua de*  
**Mirari**  
*Quarantani*

Zitaz !!  
eder jantziko  
behar duzun  
gutia daukaguz!

Sempio Mujika, 14 • IRUN  
Tfnoa: 943 080 080

**FANTXIKE**

Martxaria • Opariak • Lantzeria  
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA

zabait jantziak  
baitzen  
Fantxiak

Jaime Urutia 15. ELIZONDO Tfnoa: 948 580 312

**IPARLA**  
**kirolak**

Mendiko materiala  
kirol oinetakoak  
Paxtelak

Santiago, 51 • ELIZONDO  
948 580 585

**TOUT POUR LA FÊTE**

Jaiotzak • Eguberrietako zubaitzak eta dekorazioak  
Beserriar jantziak • Itxurteriak • Rofiteloak  
Sa artifizialak • Petardoak • Opariak

Geltokial harriha 13 • 64700 HENDRAIN • 05 59 40 37 58


Maurizio eta Felix plaza ondoan  
ELIZONDO • 948 581 822



**ESKIZ**  
INFORMATIKA ZERBITZUAK

- ORDENADOREAK • INPRIMAGAILUAK • TAILER PROPIOA
- MULTIFUNTZIO-INPRIMAGAILUAK • ZERBITZU PROFESIONALA
- IKASTAROAK (hasmenta, irudi digitala, Office, internet...)

**EGUBERRIETARAKO**  
**ESKAINTZA BEREZIAK**



# z gure dendetara!

**Martiñak**  
LONDINA

*Zorionak eta eguberri on!*

DONEZTEBE Parrokoa, 11 • 948 45 01 12  
ELIZONDO Jaime Urrutia, 43 • 948 58 13 01

**CASA OSTIZ**

ZAPATADENDA  
PAPERTEGIA  
ESTANKOAK

Gizone, emakume eta haurrendako oinetako aukera zabala

**GABONETAKO OPARIAK**

*zorionak eta urte berri on!!*

Tel eta Faxe: 948 450 289  
e-posta: costiz@telefonos.es  
Parrokoa 17• DONEZTEBE



**KOLOK**  
*menaje denda*

•SUKALDE ETA MAHAIRAKO  
TRESNERIA  
•OPARIAK

Hondarribia 4 • IRUN  
Tfnoa: 943 615 622

**Umeko**

*zorionak eta eguberri on!*

Alkaga Ind. • BERA 21780 • Tf: 948 630 475  
Juan Arana, 18 • IRUN 20302 • Tf: 943 618 452  
Erdiko kalea, 28 • RENTERIA 20100 • Tf: 943 111 585

umeko@11776.es

**GOYA**

- Baseritar jantziak
- Arropak
- Trango marka
- Mairidreak
- Mantak
- Toailak
- Kortinak
- Alfombra

**EGUBERRI ON !!**  
Altzate, 5 • BERA  
948 630 083

**Kotoi**

- Kortinak
- Estoreak
- Neurria

egindako lanak

- Etxerako
- ehungintza
- osagrainak

*eguberri on !!*  
Bidasoa, 14 • BERA  
Tfnoa: 948 631 660

**edurne**  
MAIUR ARROPADESIDA

*EGUBERRI ON !!*

Altzate 30  
Tfnoa: 948 630 606  
BERA

*EGUBERRI ON !!*

**Lulu**

Hondarribia, 15  
IRUN  
943 616 165

## GOIZUETA



Josefina Zubietza Lujanbio eta Jose Manuel Ansa Uhart 1955eko urriaren 22an ezkondu ziren Goizuetako Andre Mari elizan. Lau seme-alaben guraso eta sei biloben aiton-amon diren hauek aurten ospatu dituzte beraien 50. ezteit urteurrenak.



UTZINAKO ARGAZKIAK



## PERTSONAIA

Julen AROTZENA

## Txapeldun Lizarran

Julen Arotzena, 11 urteko pilotariak bere lehenengo zapela ekarri zuen Lizarratik azaroaren 20an jokaturako finalean Altsasuko Otamendiri irabazi ondoren. Errandonea eta Ruizen eskutik jaso zituen Julenek zapela eta trofeoa.

## Suhiltzaile boluntarioen lokala handitzeko 220.000 euro eman du Gobernuak

Esteban AROTZENA

Herriko suhiltzaileen egoitza txiki xamarra gelditu zen inauguratu orduko. Udalak eta Nafarroako Gobernuak akordioa sinatu zuten bere garaian lokala handitu ahal izateko. Herriak lurra emanen zuten

eta lruñeak proiektua eta obra zuzendaritza eta lana bera ordainduko zituen. Sinatutako epearen barrenean ez da eginen obra, baina Gobernuak azkenean beteko du esandakoa. Aurten hasiko da gaur egun erabiltzen den erai-

kinaren neurria ia bikoiztuko duen lana. Handitze lana Madalena aldera egingen da. Horretarako 220.000 euro emanen ditu Nafarroako Gobernuak eta gutxienez 30.000 euro aurten urtea bukatu baino lehen zertifikatu beharko dira.

### Illarregiren Argazki erakusketa

Mikel Illarregi Elberdin leitzararren argazki erakusketari erantzun ederra eman diote herritarrek. Jende asko igo da Ganbarara lanak ikusgai egon diren astean.

### Bakotxari berea

Feriarri buruz eman genduen berrian, Kultur Taldea eta Segi ez genituen sartu antolatzaileen zerrendan. Oker handia, gogor aritu baitira lanean bi taldeak azaroaren 26ko festa handi hori prestatzen.

## ARESO

## Txakurrak kalean lotuak eramateko agindua eman da

Kartoia eta papera bilduko ditu Mepanosak

Juana Mari SAIZAR

Alkatearen azken bandoak txakurrak kaletik lotuta eramatea agintzen du, eta bere egin beharrak nagusiak bilduko ditu. Horrela eremu publikoak garbiagoak edukiko ditugu.

### Kartoi eta paper bilketa

Ingurugiroko kontzientzia sortu nahian,

Mepanosa enpresak kartoia eta papera bilduko ditu eta udalari ordainduko dio honegatik. Orain alderantziz, ordaindu egiten dugu zaborra nahastuta botatzen delako eta ezin delako aprobetxatu. Ea denon artean pixkanaka zaborra bereizten dugun. Honerik lotuta sukaldeko olioak birziklatzea udalaren asmoe-

tan sartzen da eta elkarriketak martxan dauden, bainan ez dakite non eta nola bildu olio hori.

### Yoga ikastaroa

Yoga ikastaroa hasiteko jende kopurua bildu da eta kirol teknikariak azalduko du noiz eta non emango den.

### Kirol laguntzak

Kirolariendako diru la-



ARGAZKIA: JUANA MARI

Anartz Olano lau terdiko banakako txapelketan azpitxapedun suertatu zen Lizarran, finala 14-18 galduta. DV torneoaren finalaurrean Mikel Olazabal eta Jauregik 22-15 irabazi zuren. Neurketako onena Olazabal izan zen eta begi bistan da gaur gaurkoz aurrelari onenetakoa dela afizionatuetan.

guntzak zabaldu dira, eta aurkezteko baldintza, 18 urte baino gutxiago izatea, Areson gu-

txienez urte bete bizitzea; eta federatua edo zer taldetan kirola egiten duen justifikatzea.

**LEITZA**

## Igor Astibiak espetxean urtebete daramala salatu dute manifestazioan

Hirurehun lagunek bere eta eskualdeko beste presoen egoera salatu zuten

**ttipi-Itapa**

Igor Astibia herritarak espetxean urtebete egin duela salatuzeko 300 lagunek abenduaren 19an egindako manifestazioan parte hartu zuten, «Euskal presoak etxera» eskatuz. Igor Astibia Auzitegi Nazionalaren aginduz bere etxetik «inpunitate osoz» eraman zutea eta «inkomunikaturik egon zen hiru egunetan torturak jasan zituela» adierazi zuten manifestazio ondotik. Eskualdeko beste presoen egoera ere gogoratu zuten, «Frantzia eta Espainiako espetxeetan sakabanaturik preso» baitaude. Herriko Eneko Aizpuruk Aranjuezen lau hilabete daramala azpimarratu zuten.

**«Mario Angel Marrodán» X. Olerki Saria Leitzan**

Marrodán Olerki Elkarteak eta Leitzalde Elkarteak euskarazko «Mario Angel Marrodán» X. Olerki Sariari dagokion poema liburua aurkeztu zuten azaroaren 24an liburutegian. Aurtengo edizioan, Leitzako Mikel Illarregi Elberdín-ek idatzitako «Argazkiei begira» izeneko liburua irabazle suertatu zen. Liburu honek 23 olerki biltzen ditu eta kontrazalean Marrodán-i eskainitako poema bat ageri da. Euskaraz zein gaztelaniazko sariak argitaratu eman ditu Marrodán Olerki Elkarteak. Leitzako aurkezpenean,



ARGAZKIA: PILAR FERNÁNDEZ

**Ikasbidaian joateko kartutxo bilketa**

Ekimen bitxia proposatu dute aurten Europako erdialdera ikasbidaia egin nahi duten Amazabal Institutuko ikasleek. Ehiza postuak garbitzeko eskaini dute beraien burua eta prezioa ehiztariekin negoziatuko omen dute.

Portugaleteko Joseba Gotzon kantautoreak ere parte hartu zuen.

**Xalto sariko saioa Torrean**

Bertsolaritza hizpide dugun garaioan, azaroaren 19an bertsolari gazteak biltzen dituen Xalto Sariko saioa egin zen Torrean. Gorritiko Julio Soto izan zen onena eta Goizuetan abendu hasieran eginen den finalerako sailkatu zen. Herriko bertsolariei dagokienez, Migel Mari Elosegi hirugarren izan zen, Unai Elizasu seigarren eta Diego Riaño zortzigarren.



ARGAZKIA: DARRIO DE NAURRIN

**280 kilokoa altxatu du Inaxio Perurenak**  
Inaxio Perurenak 280 kiloko harria altxatu zuen azaroaren 20an Tolosan. Historian laugarrena da hori egiten duena, Gibitegi, Iñaki bere aita eta Saralegiren ondotik.

**MEDIKUNTZA NATURALA  
NATUROPATIA**

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO:**  
Diabeto • Asma • Zizareak • Larri azaleko alergia  
Buruko mina • Oinien izerdia • Prostatita, etab...

**IKUSMENAREN BERRESKURATZEA**      **GIHARRE ARAZOAK**

- Migraia
- Bista alferria
- Estropismoa
- Begi, latsokak-kataraktak
- Bixkortzea
- Artrita, erreuma
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldetik 2-7etara. Ordua eskatu

**943 62 30 55**      San Marcial, 7-4 IRUN

luis cestau baraibar	arkitekto teknikoa	leitza 607204485	lucésba @ msn.com
----------------------------	-----------------------	---------------------	-------------------------

**Ark<sub>b</sub> arkitektura bulegoa**

Celia Lana Ranz      Erakuntza Hirigintza Udai-aholkularitza  
Huarle Goltza 7 - 31880 Leitza - 645006478 tel

BAZTAN

# Elizondoko zeharbidearen gastu igoera azaldu dute EAko zinegotziek

Bide alternatiboak egitearen eragina izan dela jakinarazi dute

ttipi-ttapa

Baztango Eusko Alkartasunako udal taldearen ustez, Elizondo eta Elbeteko zeharbideko lanen aurrekontuak izan duen 600.000 euroko igoera, moldaketa lanek iraun zuten bitartean prestatu behar izan ziren bide alternatiboaren eragina da. Florentino Goñi eta Iñigo Iturralde azaroaren 12an egindako prentsaurrekoan jakinarazi zuten, «desbideraketa hauek 180.300 euroko gastua eragin diote Udalari, dirulaguntzarik gabe oso osorik ordaindu behar izan baititu. Horretaz gain, behin lanak akabuta bide horiek eta ondoko karrikak moldatzen 72.120 euro gastatu dira, Santiago karrika Elizondo sarrerako poligonora bitarte moldatzeko 70.130 euro erabili dira eta gainerakoa lan guzietan hobetzeko izaten diren bertze ezustekoetan joan dira».

Gisa honetara, UPN-ko zinegotziek eginda-



Florentino Goñi eta Iñigo Iturralde zinegotziak, tartean Virginia Aleman alkatea dutela.

ko kritikei erantzun nahi izan diote EAko zinegotziek. Goñi eta Iturralderen erranetan, lanak hasi baino lehen, Baztango udala Nafarroako Gobernuako kontseilariekin bildu zen, bide alternatiboaren berri emanez eta honek ekariko lukeen kostua azalduz. Erantzuna ezezko borobila izan zela go-

gorarazi dute EAko zinegotziek. Hauen ustez, bide berriak jartzea aski egokia izan da, honela kamioiendako bidea eskaintzeaz gain, Santiago karrikan tresneria handiago sartzeko aukera eman duela eta honela lanak fitoago akitu direlako. Santiago karrikan bidea txandaka emanez gero,

erretentzioak handiak izanen lirakeela ere uste dute EAko zinegotziek: «Eta guk bezala, Elizondo eta balteko bizilagun gehienek, UPN taldekoek izan ezik». Baztandarrak Balleko Etxera lan ezberdinei buruz galdezka etortzen direnean, Iruñetik hartzen duten erantzuna eman behar izaten

FLASH

## Elizondoko korala Iruñeko espetxean

Elizondoko koralak kontzertua eskaini du igande honetan, azaroaren 27an, Iruñeko presondegian. Emanaldian Sergio Martinez piano joleak lagundu zuen korala, polifonia eta herri abestiak interpretatuz.

## Azpilkuetako Dorreberria moldatzen

Azpilkuetako Elizegi auzoan dagoen Dorreberriako teilatua moldatzen ari dira. Jakina denez, San Frantzisko Xabierren amaren, Maria de Azpilkueta Aznarez-en sortetxea izan zen Dorreberria. Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenean, 1517an bota egin zuten. 1741. urtean berreraiki zuten. Bere garaian, Dorreberrian museoa egiteko asmoa agertu zuen Arkupeak elkarteak.

dietela aipatu zuten EAko zinegotziek. Honela Iruñita-Elizondo saihesbideaz, Orabideako bidea moldatzeaz, Azpilkuetako bideza zabalitzeaz, Erratzuko eskola eta konsultaz edo ikastola moldatzeaz galdetzen dietenean, halabarrez «oraingoz ez» erantzun behar omen dute beti.

Okindegia Jatetxea

# Uxoa

**OKINDEGIAN**

- Ogi artisañoa, egunekoa eta txupato
- JATETXEAN**
- Menua eta korta (asteburuetan)
- Espzialitate parillan erretako jakietan

*Zeluztasu gero, bidatsa ugrietasun irrat, jone gero!*

**Orduki industrialdea • Tfnoa: 948 45 34 03 • 31113 ARIZKUN**

**ELIZONDON EREKI DUGU!**

# abartan

**CERRAMIENTOS • ITXITURAK**

**PVC eta ALUMINIOA**

- ateak • leihoak • kontraleihoak
- manparak
- zeramikak (fabrikako prezioetan)
- kontsumo gutuko kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO  
Tel. 948 561 152 • 667 264 025 • 696 970 725  
maximo@teta.es

# Eguberri hauetako oparirik hoberena.



## **BEEP REDDIS 630**

- Intel® Pentium® 4 630 HT prozesadorea 3.00 GHz, 64 Bit-eko teknologiarekin, 2 MBko katxea - 1024 MBko RAM - 160 GBko Disko Gogorra - Kapa bikoitzeko grabagailua DVD Dual - Memoria txartelen irakurgailua - USB 2.0 portuak - Teklatu eta sagu optikoa - S.O. FreeDos - Panda Antivirus Titanium 2006 - 2 urteko berme OSOA - Monitorea sartu gabe

# 549€

91.346 Pta. BEZ barne

## **Ministerioaren dirulaguntza!**

**PC\* 1 erosteagatik 1.200 € bitarteko finantzaketa interesik gabe eta 3 urterako**

**Eskatu informazioa zure BEEP dendan**

(\*) Industria eta Merkataritza Ministerioaren "Familias Conectadas" programako baldintzari lotua dago

Publizitateko prezioak gure BEEP saleroski ghotzatuta daude. 2006ko urteraren irailetik aurrerantzat, BEEP REDDIS 630 ordenagailuak badiu Panda Antivirus Titanium 2006aren 30 eguneko birus-benikuntza. OEM softwarea da eta lubarik eta eskulibururik gabe ematen da. Intel, Intel Inside logoa, Pentium eta Centrino, Intel Corporationen AEBetan edo munduko beste estatuetan dituen markak erregistratuak edo markak dira.

**BEEP BERAN** duzu

Kanttonberri, 3 behea - T. 948 630 132 - 948 630 799

e-Posta: [bbera@datalogic.es](mailto:bbera@datalogic.es)

# **BEEP**

Soluzioak zure mundu digitalerako

BAZTAN

# Dirulaguntzarik gabe Xauli elkartearen etorkizuna zalantzan

Baztan, Malerreka eta Bertizaranako adimen urriko jendea biltzen du

ttipi-ttapa

Baztan, Malerreka eta Bertizaranako adimen urriko jendea aisialdiko ekitaldiak proposatzen dituen Xauli elkartearen etorkizuna zalantzan dago. Proiektuak bizirauten du orain arte Nafarroako Kutxak ematen zuen dirulaguntzarengatik. Aurten, aldiz, adimen urria duten pertsonen laguntzeko Nafarroako elkarteari, ANFASi lagunduko dio eta Xauli 2.000 euroko dirulaguntzarik gabe geldituko omen da. Denbora berean, otsailan Baztango udalean

eskatu zuten dirulaguntzaren zain daude.

Xaulin ibiltzen diren senideek beraien urduritasuna jakinarazi dute, 28 lagunek sinatutako idatzi baten bidez. Nafarroako Kutxaren erabakia ez dute ulertzen senideek: «Aurten kanpaina bat egin dute, 'Zuk erabakitzen duzu zure diruak sortzen duen irabaziekin zer egin' eta juxtu urte honetan iturria itxi digute. ANFAS bezalako elkarte handiei lagundu diote, lan handia egiten omen dute, baina mendialdean ez dituzte gu-



ELIZONDO ARIZKUNEA

## Erregerena eta Lameriñasen argazki erakusketa Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean

Abenduaren 2tik urtarrilaren 8a arte Joxe Erregerena eta Juan Lameriñasen argazki erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, 18:00etatik 21:00etara. Inaugurazioa abenduaren 2an 19:00etan.

re senideen beharrak asetzen, Xaulik ordea ederki egiten du lana».

Xauli duela zazpi urte sortu zen. Jaime Urrutia karnikan duten egoitzan biltzen dira larunbatero, tailer ezberdinak egiteko. Tarteka ateraldiak egiten dituzte, azkenekoa Cabarcenora. Hurrengorik izanen den ez dakite. Irantzu Izeta eta Maria Tamayo dira

elkartearen sortzaile eta arduradunak. Nafarroako Kutxaren dirulaguntzarik gabe etorkizuna beltz ikusten du Maria Tamayok: «Dirulaguntzarik gabe urtea akituiko dugu, gan den urteko dirua hor dugulakoz, baina heldu den urtean nahiko lan izanen dugu!».

Xauli elkarteak, Elizondotik kanpoko baz-

kideendako taxia jartzen du. Bazkideek urteko 45 euroko kuota ordaitzen dute eta taxia erabiltzen dutenek hilean 10 euro gehiago jartzen dute. «Taxiak gastuaren zatirik handiena eramaten du—dio Tamayok— hilean 130 euro. Orain taxirako ere ez bazaigu ailegatzen, seguruenik ezin izanen dugu aitzinera segitu».

**XATURETXEA**  
  
**JATETXEA**  
 948 637 027 - LESAKA

**IRU BIDE**  
  
 Tfn: 948 637 127  
**LESAKA**

**MENDI**  
 ostalua  
  
 Santiago 25  
 948 590 313  
**ELIZONDO**

**MENDIALDE**  
 Jalekoa  
  
**AMAIUR • 948 453 060**

**Javier Manterola**  
 - tekniko instalatzailea  
 - iturgintza  
 - gasa  
 - kalafaktzioa  
 Tel: 629 449 602 - BERA

**ARTEKARI TALDEA**  
 ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontralutarako laguntzak
- Enpresa berr ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Erenta aitortpenak
- Elbarratasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

**LESAKA:** Sibiria, 71-behea  
 Tel: 948 637 050  
 Faxa: 948 637 404

**BURLATA:** La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713


artekaritza.com

**ANTXITONEA**  
 Trinketea  
  
**Jatetxea - Ostalua**  
**Hotela - Trinketea**  
*Menu Borozak*  
 Tel: 948 581 807  
 948 581 853  
 antxitonea@terra.es - Braulio Iriarte karnika - ELIZONDO

# alkain

zeramik eta bainuak

C/ Amutalde, 21 • 20280 Hondarribia • Tel.: 34 943 64 52 54  
w w w . a l k a i n . c o m



**ORDUTEGIA**  
Astelehenetik ostiralera  
9:30 - 12:30  
14:30 - 19:30  
Larunbatetan  
9:00 - 12:30

**Azulejoak**  
Kalitate goreneko  
barne-zoruak  
7,45€/m<sup>2</sup> -tik aurrera\*

\*2005 urteko promozioa

K  
A  
L  
I  
T  
A  
T  
E  
A  
P  
R  
E  
Z  
I  
O

## SENPERE

# Ibilgailuen abiada mugatu eta autobus geltokia eraikiko da Herburun

San Martinen bestaren kari  
Thomas Tapia omendu dute

Franck DOLOSOR

Herritarren segurtasuna hobetzeko, abiada muga aldatuko da Herburu-Cherchebruit auzogunean. Segurtasunaz eta ongi izateaz mintzatzeko auzokideak eta hautetsiak bildu dira berriki Dantxariako eta Sarako bidean dagoen auzoan. Herriko hautetsiez gain, lehen aldikotz egin den bilkura hortarat agertu zen Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusia.

Herburu-Cherchebruit-en jendea kexu da ez baita errea bide bazterrean ibiltzea gutunak hartzeko edo autobusa hartzeko bertzeak bertze. Hautetsiek ikertuko dute bide erdian ugarteak egitea bidea heritzeko eta beraz ibil-

gailuen abiada apaltzeko. Lan bera egin da berriki herriko sartzean kirol zelaiaren ondoan. Bide bazterrean ezarriko diren aglomerazio seinaleeri esker ibilgailuen abiada 50tan mugatuko da. Bertzalde, autobusa hartzen dutenentzat aterbe bat eraikiko da heldu den buruileko.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NEVILLE

Aurten, 20 eta 35 urte bete dituzten senpenterrek biltzarrak egin dituzte Nivelle ostatuan hazilaren 11n eta 12an.

ARGAZKIA: STUDIO DE LA NEVILLE

## Thomas Tapiari omena

Thomas Tapia, azken zazpi urteetan bandera eramailea, omenduzuten hazilaren 11n. Omenaldi hunen bidez, memoria kolektiboa omendu nahi izan dute gudari ohiek. Munduko lehen gerra urruneko gauza bada ere jende ainitzentzat, hautetsien ustez, baitezpadakoa da gogoratzea 8 miliun europarrek bizia galduta zutela eta 20 miliun lagun kolpaturik egon zirela.



**ZOANSA** HYUNDAI  
MARKA GUZIEKON KONPONKETA SEAT Audi

Berrieta, 2 - Akaia Industrialdea - LESAKA (gaurra Berrieta)  
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

**Landibar** EGUNERO IREKIA  
ZENTRO KOMERTZIALA

300m pertume markarik ezagunenekin,  
usain onak, kosmetikoak...  
Euskal Herriko preziorik hoberenak

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

# NAFARROAREN EGUNA

ABENDUAREN

# 3<sup>A</sup>



Jauregia ezagutzeko bisita gidatuak



Jaialdia Gaztekoentzat



San Frantzisko Xabierkoari eskaintza



Konkertzua Baluarte



Gazte Jaialdia



Maria Isabel y 3+2



Nafarroako errezeko Domina



Abesbatzak eta Musika Bandak

# GOZA EZAZU!



Nafarroako  
Gobernua

SARA

# Telethon diru-bilketa kanpaina egingen da abenduaren lehen egunetan

Abenduaren 1ean hurrek ibilaldia egingen dute eta abenduaren 3an Larrungo Itzulia

Laetitia eta Sandrine

Sarako elkarteek eta eskolek antolatutako Telethon egingen da:

Abenduaren 1ean, ostegunarekin haurren ibilaldia, arratsaldeko 2etan errebotean bilduko dira hiru eskoletako haurrak oren bat edo oren bat eta erdiko ibilaldi baten egiteko adinaren arabera, haur guzietan idekia. Arratsaldeko 4etan hurrek krakada egingen dute errebotean.

Segitzeko, abenduaren 3an larunbatarekin, Larrungo itzulia; abiatzea treinez eta itzultea oinez gehienik 130 jende parte hartzen ahal du. Nahi duenak bere izena ematen ahal du Turismo bulegoan (05.59.54.20.14.) abenduaren 2a ostirala 5ak aintzin, 10 euro eman beharko da parte hartzeko. Hitzordua San Inazio lepoan 3etan.

Arratsaldeko 5etatik goiti San Inazio lepoan pastiza eta tragoa salgai. Bertzalde eske unti bat izanen da postetxean ostiraletan egun guzian eta larunbat goizean eta San Inazio lepoan larunbatean arratsaldeko 4etatik 8ak arte.

## Saran ere urtats gauetan presoak gogoan

Bigarren aldiko, urtats gaua antolatua izanen da Omordian presoan alde. Abenduaren 31n elgarretaratze bat egingen da Sarako plazan arratsaldeko 7etan. Ondotik zintzur bustitzea egingen da Omordiako gelan eta afaria ere. Animazioa izanen da gau osoan.

Txartelak erosten ahal dira, 35 eurotan, abenduaren 24a aintzin Sarako trinketean, Ur-

txola jatetxean eta gaztetxean astelehen eta ostiraletan 7:30etatik 8:30ak arte.

Informazio gehiagorantz Leti: 06.84.27.51.27 edo Joanes: 06.70.07.76.56.

## Eskoletako kontuak

-Olentzero heldu zaigu laster

Abenduaren 17an larunbatarekin, Olentzero hiru eskoletako haurrekin ibiliko da Sarako karriketan arratsaldean. Ondotik denak elgarrekin errebotean krakada goxoa egingen dute.

-Antzerkia:

Sarako ikastolako haurrek antzezlan aurkeztuko dute abenduaren 10ean goizeko 11etan Omordiako antzerki gelan. Ondotik zintzur bustitzea egingen da. Denak gonbidatuak za-



LEHENBIZKAI ARIZKUN

**41 kiloko kuaia Irlanda baserrian**  
Lehenbizkai auzoko Irlanda baserriko Jean Elizalde, 79 urteko gizasemeak, 41 kiloko kuaia eder hau hazi du baratzean.

rete!!!

chegaray Benat eta Martin Pikabearen kontra.

-Mus txapelketako emaitzak

Azaroaren 19an, Sarako eskola publikoak mus txapelketa antolatu zuen, 18 ekipek parte hartu zuen, final handian Michel Etcheverryk eta Jean Marc Aspirotek irabazi zuten Et-

## Kirolak

Eskubaloitza taldeak Mourenx-en galdu du 23-18 azaroaren 18an.

Alderantziz Sarako errubiko bi taldeek irabazi zuten Hossegoren kontra, lehen taldeak 35-6.

Carlos  
Garaikolezen  
Etizenike

abokatua

948 581 408  
948 580 433  
Frantziako ibilbide 12  
Amazako 3B  
ELBETE

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 458 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**SOULE**  
luleta artea  
Tel: 948 453 444  
Mug: 629 659 583  
ARIZKUN

IRKIKO  
ETXEO  
EDANTEGIA

CASE DE A NAYE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL. 0559542519



## EZKONTZAK

Ligia Susana Verdejo eta Segundo Gonzalo Tipanyaca, Ekuadorrekoak Beran, azaroaren 12an.  
 Victor Manuel Franco Chavale eta Nerea Zazpe Braña, Donostia eta Iruñekoak, Almandozen azaroaren 5ean.  
 Francisco Valer Goñi eta Maria Isabel Etxeberria Iturbide, Arizkungoak, urriaren 29an.  
 Arkaitz Muratori Irurtzun eta Bihotz Unanua Bertiz, Donostia eta Elizondokoa, azaroaren 12an.  
 Asier Criado del Puerto eta Marta Arruabarrena Irigolen, Berakoa eta Lesakakoa, uztailaren 23an.  
 Jose Luis Tapia Iguzkiagirre eta Maria Concepcion Iturria Leiza, Igantzi eta Lesakakoa, ekainaren 25ean.  
 Rafael Enrique Alcantara Ojeda eta Miren Guadalupe Davoz Zelaleta, Valladolid eta Iruñekoak, apirilaren 23an.  
 Maria Jose Ezkurra Legazkue eta Miguel Angel Ezkurra Baleztena, Urrotz eta Saldiasakoa, azaroaren 19an.



## SORTZEAK

Ainhoa Irigolen Iratzoki, Berakoa, azaroaren 14an.  
 Gabriel Gallego Sanchez, Berakoa, azaroaren 17an.  
 Estrella Sorzabalbere Nufiez, Elizondokoa, azaroaren 6an.  
 Valeria Adin Urtasun, Elizondokoa, azaroaren 9an.  
 Ainara Dendarrieta Elizaintzin, Iruñekoak, azaroaren 13an.  
 Leire Ballarena Goienetxe, Elizondokoa, azaroaren 16an.  
 Markel Rebollo Gamio, Lesakakoa, azaroaren 12an.  
 Itziar Villabona Gogortza, Leizakoa, azaroaren 4an.  
 Aitor Erbiti Ruiz, Leizakoa, azaroaren 5ean.  
 Joseba Olano Oderiz, Leizakoa, azaroaren 10ean.  
 Maddi Iturbe Saenz, Leizakoa, azaroaren 11n.  
 Enaitz Elizaintzin Lekuona, Oitzekoa, azaroaren 13an.

## HERIOTZAK

Francisco Javier Rodriguez Orenes, Badajozekoa Igantzin, azaroaren 15ean, 39 urte.  
 Ubaldino Dominguez Gonzalez, Leizakoa, azaroaren 8an, 65 urte.  
 Francisco Ariztia Aintziburu, Azpilikutakoa, azaroaren 9an, 84 urte.  
 Maria Asuncion Indaburu Sanzberro, Etxalarkoa, azaroaren 11n, 83 urte.  
 Trinidad Etxenike Launagarai, Elbelekakoa, azaroaren 11n, 85 urte.  
 Julio Zudaire Bizkaia, Elizondon, azaroaren 15ean, 82 urte.  
 Marcelina Olague Agerre, Elizondon, azaroaren 15ean, 89 urte.  
 Fermin Mutuberria Urroz, Zubietakoa, azaroaren 16an, 75 urte.  
 Maria Luisa San Martin Agerrea, Donostia, azaroaren 17an, 85 urte.  
 Sotero Etxandi Jauregi, Oronoz-Mugarikoa, azaroaren 18an, 77 urte.  
 Margarita Pikabea Aitzugarai, Berakoa, azaroaren 18an, 79 urte.  
 Fernando Arraztoa Inda, Iruñekoak, azaroaren 21ean, 84 urte.  
 Jeanne Ordoki, Sarakoa, azaroaren 16an, 79 urte.  
 François Urtsuegi, Sarakoa, azaroaren 18an, 63 urte.  
 Jean Urrutia, Sarakoa, azaroaren 18an, 65 urte.



## ARANTZAKO UDALA

### HASIERA BATEKO ONESPENA ARANTZAKO UDALEKO ARAU SUBSIDIARIOEN ERAIKITZEKO ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA

Udalak, 2005eko urriaren 21ean egindako osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Arantzako Udaleko Arau Subsidiarioen eraikitzeko ordenantza orokorraren 77. artikularen aldaketa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 325. artikuluan xedatutakoarekin bat, espedientea jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesatuek espedientea aztertu eta egoiak iruditzen zaizkien errekamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

Arantzan, 2005eko urriaren 26an.  
 Alkatea,

Vicente AROCENA BIURRARENA jauna



### Margarita PIKABEA ALZUGARAI

2005eko azaroaren 18an hil zen Beran, 79 urte zituela.

*Zure begien dizdira  
 Ezpainetako irria  
 Beti gure bihotzetan egonen dira.*

Mila esker gurekin egon zareten guztiel.

ZURE FAMILIA



### Victoria HITA ARCE «Bittori»

Alejandro Juanikotena Torres-en alarguna

I. URTEMUGA

Cancun-en (Mexiko) hil zen, 2004ko azaroaren 27an

*Ez agerrik, ez adiorik  
 gero arte baizik.  
 Gure bihotzetan betiko  
 maite zaitugu amatxi.  
 Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA

## HERRI KIROLA

# Mindegiak 56 urterekin irabazi du Nafarroako aizkolari txapelketa

Larretxea eta Nazabalen hutsunea ederki baliatu zuen Ezkurrakoak

A.A.

Donato Larretxeak eta Floren Nazabalek ez zuten Nafarroako aizkolari txapelketaren finalean lehiatzerik izan eta bi faboritoen hutsunea ederki probextu zuen Mikel Mindegiak XXI. mendeko bere lehendabiziko txapela jantzeko. Duela bost urte, 2000. urtean irabazi zuen azkena lehen mailan. Hurrengo urtean ez zuen txapelketa ofizialetan parte hartu, omenaldia ere egin zioten, baina ez zuen aizkora utzi. Bigarren mailan hasi behar izan zuen, txapeldun izan zen eta orain, Doneztebeko feria egunean, txapela jantzi zuen, 1990. urtean Nafarroako Herri Kirol Federazioa txapelketa antolatzen hasi zenetik zazpigarren txapela du Ezkurrako maisuak. Aurretik ere bazituen batzuk irabaziak, baina orduan ez zen txapelketa urtero egiten eta ez zen oraingo bezain ofiziala. Horregatik, Mindegiak berak ere ez daki zenbat txapel irabazi dituen.

Doneztebeko saioan hasi eta bukatu nagusi izan zen, lan polita egin zuen eta inoiz ez zuen bete-betean ari zenaren seinalerik eman. Bere



Argazkia: AITOR AROTZENA

XXI. mendeko lehen txapel handia jantzi zuen Mindegiak Donezteben. Bi egun beranduago Aizkolari Azkarrena lehiaketa ere irabazi zuen.

arerioei begiratu, lana txukun eta zuzen bete eta arazo handirik gabe egin zen txapelaren jabe, 4 kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi 72 ontzako 31 minutu eta 40 segundutan moztu ondokik.

Mikel Mindegiarekin batera, finalerdian sailkatutako Jose Juan Bar-

berena eta Antonio Senosiain, eta Larretxea eta Nazabalen ordeztu ziren Juan Jose Lopez eta Daniel Vicente aritu ziren finalean. Otsagikoak nabaritu zuen azken orduko gonbidatua izan zela. Ez zuen finala prestatzeko batere astirik izan eta segidan gibelean geldi-

tu zen. Bertze hiru aizkolariek, Mindegiari podiumean norik lagundu borrokan aritu ziren. Senosiain ongi hasi zen, baina bete egin zen eta pixkanaka-pixkanaka gibelera joan zen. Lopez eta Barberenak bigarren posturako lehia estua izan zuten eta azkenean hiru segunduko aldearekin, Beruetekoaren alde erabaki zen. 34 minutu eta 14 segundu behar izan zituen Barberenak lanak akitzeko, Mindegiak baino bi minutu eta 34 segundu gehiago, eta 34 minutu eta 17 segundu behar izan zituen Lezaungo Juan Jose Lopezek. Antonio Senosiain laugarren izan zen, 36 minutu eta 51 segunduko denborarekin eta Daniel Vicente bosgarren izan zen, 39 minutu eta 21 segunduko denborarekin.

## AIZKOLARI AZKARRENA ERE MINDEGIA

Hiru egunez bi txapel jantzi zituen Mikel Mindegiak. Izan ere, azaroaren 20an Tolosan Aizkolari Azkarrena lehiaketa egin zen. Bertan, Euskal Herri osoko 30 aizkolari baino gehiago aritu ziren eta berriz zaharrena, Mindegia izan zen jauna eta jabe.

## Mugertza II txapeldun gazte mailan

Doneztebeko herri kirol saioan Euskal Herriko gazte mailako aizkolari txapelketa ere jokatu zen. Mutrikuko Ugaitz eta Aratz Mugertza anaiak eta Dimako Aitzol Atutxak lehia ederra eskaini zuten. Bizkaitarra aitzinetik joan zen ia proba osoan, Ugaitz Mugertza hurbilean zuela. Azkenaurreko enborrean aurrea hartu zuen Mugertza II.ak eta beretzat izan zen txapela (11'45"). Bigarren Atutxa izan zen (12'09") eta hirugarren Mugertza III (13'24").

## GIZON ETA EMAKUMEAK ARPANAN

Bigarren mailako Nafarroako arpanari txapelketa ere jokatu zen Donezteben. Garraldako Fran Juanperez eta Angel Luis Mandazen eta Sunbillako Mikel Bertiz eta Arraiozko Xabier Urtutia aritu ziren. 45 ontzako enborrari 10 kor-te horizontalean eta lau bertikalean eman behar izan zituzten. Hasi eta bukatu aitzinetik joan ziren Bertiz eta Urtutia, korteak abudo eta txukun eginez. Azkenean, 6 minutu eta 50 segunduan akitu zuten lana eta Garraldako bikoteak 7 minutu eta 24 segundutan.

Nafarroako emakumeen arpana txapelketan, Orkoien Begoña Armendariz eta Bea Urrizola nagusi ziren, Arbizuko Maitane Txueka eta Antsoaingo Susana Agerre eta Lezaungo Itziar Nuñez eta Elena Urabaien gibelean utzita.

	54	54	60	60	72	72	60	60	54	54
1. Mikel MINDEGIA	1'17"	3'08"	5'46"	8'57"	14'01"	19'34"	22'57"	26'29"	29'13"	31'40"14
2. Jose Juan BARBERENA	1'47"	3'52"	7'05"	10'11"	15'24"	21'11"	25'05"	29'17"	32'02"	34'14"56
3. Juan Jose LOPEZ	1'33"	3'34"	6'45"	9'57"	15'28"	21'47"	25'14"	29'30"	32'03"	34'16"43
4. Antonio SENOSIAIN	1'21"	3'10"	6'16"	10'00"	15'37"	22'27"	27'32"	31'33"	34'45"	36'51"67
5. Daniel VICENTE	1'39"	4'05"	7'22"	11'57"	18'38"	25'33"	29'41"	33'43"	36'34"	39'21"15

## MOTORRA

# Beñardo Zozaiara garaile Lesakako X. Rallysprint Auto Lasterketan

Guzira 67 gidari aritu ziren Agiñako maldetan goiti eta beheiti

A.A.

Azaroaren 19am egin zen Lesakako hamargarren Rallysprint auto lasterketa. Eguzki-Sport eskuderiak Agiñako maldetan antolatutako rallyan 67 gidarik parte hartu zuten eta guzieren artean, Iruñeko Bernardo Zozaiara izan zen azkarrena, BMW M3 autoarekin. Zozaiaren kopilotoa Ion Arburua beratarra da eta Eguzki Sport eskuderiakoak dira. Hamabortz gidarik proba utzi behar izan zuten, matxurak edo istripuak zirela medio.

Lesakako Rallysprinta Nafarroako Rally txapelketarako baliagarria da, bai junior eta bai maila nagusirako, Horretaz gain, seigarren RAC Vasco Navarro Koparako eta lehendabiziko Traseras Koparako ere puntuagarria da.

Jakina denez, lau txandatan banatzen da Lesakako Rallysprint auto lasterketa. Bi Agiñako maldetan goiti egiten da eta bertze biak beheiti, guzira 9.400 metrokoak. Hiru lehendabiziko txandetan Beñardo Zozaiara nagusitu zen.



ARGAZKIA: LEGARRA

Ion Arburua eta Beñardo Zozaiara irabazleak BMW M3 autoarekin.

Laugarren txandako emaitzen inguruan eztabaida izan zuten epaileek, baina gauza bat garbi zegoen, Beñardo Zozaiara eta Ion Arburua izan zirela irabazle, lehen hiru saioretan lortutako abantailari esker. Azken txanda honetan zortzigarrenak izan ziren, baina lehendabizikoak sailkapen oroko-

rean, 26 minutu eta 18 segunduko denborarekin.

Sailkapen orokorrean bigarren Jose Mari Leizeaga izan zen (Citroen C2 GT), 5 segundura eta hirugarren Jon Izagirre (Citroen C2 GT) 8 segundura. Ramon Apalantza laugarren izan zen Mitsubishi Evo-

rekin eta bosgarren Txema Uzkudun Renault Clio Williams autoarekin, Gisa honetara, Leizeagak aurten RAC Vasco Navarro Koparabazi du eta Izagirre bigarren izan da. Traseras Kopari dagokionez, Beñardo Zozaiara irabazi du eta Xabier Undianok eta Patxi Hoyosek osatu dute podiuma.

## HERRI KIROLA

# Harrizulatzaille taldea osatzeko deia egin dute Hondarribiatik

Euskal Herriko Ligan parte hartzeko asmoarekin

Gure inguruan herri kirolez zuzentzen diren taldeak izaten da harrizulatzaille. Halere, Bizkaiko Meatzaldean aski zabaldua dago eta hamar bat herrietako zultzailleek parte hartzen dute Euskal Herriko Ligan. Hondarribiako Jaizubla auzoko lagun batzuk ere hasiak dira aurten, Joxe Ramon Aia prestatzaille fisikoren agindupean. Hiru lagun aritzen dira

eta momentuz binaka eta hirunaka egiten diren lehiaketa eta erakustaldietan bakarrik hartu dute parte. Dena den, Joxe Ramon Aia aipatu digunez, «Euskal Herriko Ligan parte hartu ahal izateko hamar bat laguneko taldea beharko genuke. Zultzailleek gain, lagun-tzailleak, zulo hondarribiako garbitzeko ura botatzen dutenak, epaile-

ak eta bertze behar izaten baitira». Nafarroako mendialdean herri kirolerako afizio handia denez, harrizulatzaille talde honetan parte hartzeko deialdia egin dute Hondarribiatik. Heldu den martxoan hasiko den Euskal Herriko Ligan parte hartzea izanen litzateke helburua. Interesatuak 618 887555ra deitu behar dute. (Joxe Ramon).



ARTZAKOZ

Harrizulatzailleak lanean Bizkaiko Meatzaldean.

# AGENDA

## egunez egun

### ZINEMA

#### LEITZA

Abenduaren 2, 3 eta 4an «Charlie y la fábrica de chocolate» filma eskainiko da zinemaz.

Abenduaren 9 eta 11n «Nadie sabe» filma eskainiko da zinemaz. Ostiralean 22:30etan, igandetan 19:30etan eta larunbatean 16:30etan.

### ERAKUSKETAK

#### ELIZONDGO

Abenduaren 2tik urtarrilaren 8a arte Joxe Erregerena eta Juan Lameriñas-en argazki erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, 18:00etatik 21:00etara. Inaugurazioa abenduaren 2an 19:00etan.

### MENDI ATERALDIAK

#### BAZTAN

Abenduaren 4an Erdiz Bizirik ateraldia egingen du Baztango Mendigoizaleak taldeak.

Abenduaren 11n Irubelakaskora ateraldia egingen du Baztango Mendigoizaleak taldeak.

#### ZUGARRAMURDI

Abenduaren 11n Azkainera ateraldia egingen du Abxuria mendia taldeak.

### ANTZERKIAK

#### LESAKA

Abenduaren 4an Sebastopoleko titiliteroen «Mamuboaaren arazoak» ikuskizuna 17:00etan frontoian.

#### IGANTZI

Abenduaren 10ean Teresa Lopez de Muniainen «Ugaztun baten antsiak» antzezlanak ikusgai Baratzondon 21:00etan.

## TELEBISTAKO TXOKOA



EGUBERRIAK BAINO LEHEN

# Igantzi eta Iturengo Kultur Egunak ekitaldiz beteak datoz

Lesaka eta Goizuetako feriek akautu da udazkeneko feria eta azoka denboraldia, baina Eguberriak baino lehen izanen da gure herrietak kulturarekin lotutako ekitaldirik. Igantziko Kultur Egunak, errate balerako, abenduaren 7tik 10era egingen dira. Iaz artzaintza eta bere produktuak izan ziren Kultur Egunen protagonistak. Aurtengo erakusketa, berriz, eskulanen inguruan antolatu du Biltoki Elkar-teak. Ari dira dagoeneko egun horretan ikusiko ditugun lanen bilketan. Horretaz gain, abenduaren 8an bizkotxo lehiaketa ere izanen da. Abenduaren 7an Ganbara Musika, 9an haurrentzako herri kiro-

lei buruzko tailerrak Kulkirekin eta 10ean ipuin kontalariak eta antzerki emanaldia ere izanen dira.

### ITURENGO KULTUR EGUNAK ABENDUAREN 2 ETA 3AN

Iturengo Ibintza kultur taldeak ere Kultur Egunak antolatu ditu aurten abenduaren 2 eta 3an. Ortziral arratsean talo jatea eta kantaldia izanen dute, jaione eta Jonekin. Larunbat goizean haurrentzako eskulan tailerra eta koxkorragoendako ginkana, herri kirolak eta bertze jokoak izanen dira. Bazkalondan, Gorriti eta bere animaliak eta mus txapelketa izanen da eta arratsean afaria eta kantuak.

## DISKAK



«Bakoitzari berea»

LOR

GOR, 2005

Orain dela bi urte, Eloorrioko laukoteak taldearen izen bera zeraman bere estraineiko lana karrakatu zuen. Bi urte hauetan taldeak hairbat zuzeneko eskaini ditu, kantu berriak sortu ditu, eta euren buruekin eta lanarekin konfidantza erakutsi dute; bitartean, taldearen finkatze horren lekuko izan gara. Orain, lan guzti horren fruitua heldu zaie: *Bakoitzari berea*, LORen bigarrena. Oinarri erit-miko sendoak, txukun jotako kitarak eta edeki landutako ahotsez osatuta dagoen diskoa duzue esku artean. Haien estiloari jarraikiz, metala eta rock melodi-koaren arteko eremuan murgildu dira berriro, beti ere euren sormenari mugak paratu gabe. Taldekide berberak dira, baina oraingoan Dummyk ahots nagusia utzi eta eta kitarrei ekin die, mikroan tokia Lan-deri utziz.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Azaroaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



Zerrikumea (19 kilo): 34,00 € (+6,00)

Zerri gizena 0,930 € kiloak. (+0,010)

Zerramak: 0,440 € Kg/bizirik. (+0,010)

### BEHIKIA



Aretze gizenak: Idixkoak: €/kg. Kanal Extra 3,63 (+0,06)  
1.koa 3,40 (+0,06)  
2.koa 3,27 (+0,06)  
Umuxak: €/kg. Kanal Extra 3,73 (+0,06)  
1.koa 3,52 (+0,06)  
2.koa 3,34 (+0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.  
Aretze txikiak (15 egun ingurukoak):  
Aretze mestizoak: umuxak 210,00 (+15,00) idixkoak 246,00 (+6,00)

Aretze nabarrak: umuxak 175,00 (+15,00) idixkoak 220,00 (+20,00)  
Zaldikoak: €/k  
Sortuberiak: 2,95/3,01  
Zaldi-behorak: 1,57/1,87  
Bildotsak: €/k  
6-8 kilokoak: 8,20/8,40  
8-10 kilokoak: 6,50/7,10

# URTE AMAIERAKO ESKAINTZA PREZIO INTERESGARRIAK

**"KM 0" IBILGAILUAK:** Berriak, estrenatzeko direnak  
4 urteko garantiarekin



**RENAULT LAGUNA DCI**  
azkeneko modeloak  
azkeneko ekipamenduekin



**RENAULT SCENIC DCI**  
azkeneko motor bertsioekin

**IBILGAILU IA-BERRIAK: 2004 - 2005**



**CLIO DCI** (bat baino gehiago)

**MODUS DCI** (bat baino gehiago)

**MEGANE DCI 1.5 eta 1.9** (bat baino gehiago)

**MEGANE GRAND TOUR DCI**

**SCENIC 1.6**

**SCENIC 1.5 eta 1.9** (bat baino gehiago)

**ESPACE DCI**

**KANGOO DCI** (bat baino gehiago)



**RENAULT**

**PEDRO GARMENDIA S.A.**

Tel: 948 580 431 - 948 580 436

Faxa: 948 580 973 - Tel. portable: (0034) 609 415 771

email: [garmendia@red.renault.es](mailto:garmendia@red.renault.es)

**ELIZONDO**



**Langileak.** Obrak, gidariak, zaborrak, garbitasuna. Udalebotarako behar dira. ☎ 948 199596.

**Gidariak, txoferrak.** Abudo sartzeko Nafarroako Diputazioan. Kontratu mugagabea. ☎ 948 199596.

**Premiazkoa.** Haur zaindariak eta haur eskoletarako hezitzaileak behar dira. ☎ 948 199596.

**Sukalde laguntzaileak, sukaldariak, kamareroak.** Lanpostu finkoak. Ordutegia: Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Correos.** Bete behar dira: banaketarako, sailkatzeko eta bezeroari arretarako langileak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Laborategia.** Ospital eta Nafarroako Gobernurako lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak:** igeltseroak, elektrizistak, iturginak eraikin publikoen mantenimendurako. Astelehenetik ortziralera, Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Hautzaindegi publikoak.** Bete behar dira: haur zaindariak, hezitzaileak. Ordutegi intentsiboa. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak:** igeltseroak, elektrizistak, iturginak eraikin publikoen mantenimendurako. Astelehenetik ortziralera, Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Pascali** traktorea salgai, 19 zaldikoa. Bera tresnariarekin. ☎ 948 393131 (Juan Ramon arratsez).

**Seat Ibiza** autoa salgai, 1999 urtekoa, 100.000 km, 110 zald. ☎ 616 799427.

**Mendiko moto zahar bat**

**BERAko UDALA**

**UEZKO BORONDATEZKO BIRZATIKETA PROIEKTUA ETA HIRIGINTZA HITZARMENA HASIERA BATEZ ONESTEA**

Berako Udaleko Alkate-Lehendakariak, 2005eko urriaren 21ean, Nicasio Gofri Michelena eta beste bi gehiagok aurkeztutako UEZko Borondatezko Birzatiaketa Proiektuari, eta Nicasio Gofri Michelena eta M<sup>o</sup> Angeles Lasarte Echeverriak aurkeztutako Hirigintza Hitzarmenari dagokiona, hasiera batez onesti zuten.

Espedientea jendaurrean izanen da hogei egunez, iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2005.11.18  
ALKATEA  
Helena Santesteban  
Guelbenzu

**BERAko UDALA**

**XEHETASUN AZTERLANA HASIERA BATEZ ONESTEA**

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2005eko irailaren 28an egindako biluraren, Promociones Iturpea S.L.k aurkeztutako UEF-ko Xehetasun Azterlana, 140. lur-zatiari dagokiona, hasiera batez onesti zuten.

Espedientea jendaurrean izanen da hogei egunez, iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2005.11.18  
ALKATEA  
Helena Santesteban  
Guelbenzu

**IGANTZIKO HERRIKO ETXEA**

**2005EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN ONARPENA**

Igantziako Udak, 2005eko urriaren 14ean egindako bileran, 2005eko aurrekontuaren espediente hasiera batez onartzea erabaki zuen. Espedientea jendaurrean hamabortz egunez egonen da, interesatuek aztertu eta errekamazioak egin ditzaten, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko izutalaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 275., 284. eta 236. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

**2004KO EKITALDIKO KONTUEN ONARPENA**

Igantziako Udak, 2005eko azaroaren 11an egindako bileran, 2004ko kontuen espedienteari aldeko bostena ematea erabaki zuen. Espedientea jendaurrean hamabortz egunez egonen da, interesatuek aztertu eta errekamazioak egin ditzaten, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko izutalaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Igantzi, 2005ko azaroaren 22an  
ALKATEA, Jesus M. Begino Garro

**TALLERES SANTESTEBAN**  
☎ 948 450282 • DONEZTEBE

**KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-18 HILABETEKOK)**

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

**ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK**

EHIZARRAK, HOTOAK, ZALDIKAK, ETA QUAD-AK, GARRAIATZEBKO...  
ZURE NEURRIA  
EGINDAKO ERREMOLKEAK

**SAMPI ARAGON ZOANSA**

Seat Ibiza SDI, Seat Ibiza TDI, Seat Leon TDI, Peugeot 206, Opel Corsa, Mitsubishi Pajero 3 eta VW Golf IV, Citroen Xsara Picasso, Citroen ZX TDI, Peugeot 306 TDI, Ford Fiesta, Hyundai Getz

**MENDIAUR MOTOR**  
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**  
Mitsubishi DD 3.5 eta Vaux 3.5 eta TDI, Opel Astra, Terros II, Gallager 3 eta, Grand Vaux 3 eta, Citroen Xsara HDI eta TDI, Opel Zafira, Peugeot 3 eta eta Land Rover Freelander 3 eta SUZUKIAK ETA YAMAHA AKUKERAN

erosko nuke, Montesa, Bul-taco edo Ossa. Berdin zait egoera. ☎ 620 538408 (arratsaldez).

**Peugeot 206 HDI-XS** autoa salgai. Extrekin. Egoera onean. ☎ 653 732353.

**Renault Laguna DTI** autoa salgai, 100 zaldikoa, 1996koa. Egoera onean. prezioa negoziagarri. ☎ 667 851605.

**Fiat Bravo JTD 105 Turbo Diesel** autoa salgai, 2000. urtekoa, Klimatizadorea, lantak, ABS, Airbag, gris metalizatua, egoera onean. Prezioa: 5.700 euro transferitua. ☎ 617264039.

**Audi A3 TDI** Ambition autoa salgai, 110 zaldikoa, 2000. urtekoa. Prezioa: 12.600 euro. ☎ 699 634554.

**Audi A6 2.5 TDI** Tiptronic autoa salgai. ☎ 686 485992.

**Peugeot 106 1.5D** autoa salgai. Egoera onean. ☎ 637 083853.

**Citroen Saxo VTS 16v** salgai. Egoera onean eta extra askorekin. ☎ 666 419045.

**Landini** markako traktorea salgai, 8860 modeloa. Berr berria. Prezio oso onean. ☎ 660 323286.

**Peugeot 206 GTI** autoa salgai. Larruzko eserlekuak.

Egoera onean. ☎ 619 738965 (8:00etatik 19:00etara).

**Volkswagen Golf GTI** autoa salgai, 1989. urtekoa. ITV pasatu berria. ☎ 617 193086 (19:30etatik aitzinera).

**Citroen ZX** autoa salgai, N-AM matrikuladuna. Arras egoera onean dago. ☎ 660 343337.

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

**Pottoka famili osoa** salgai. Beltzak, 4 urteko behorra ustez emari. 3 urteko behoka ustez emari. Bizigutzia mendian egindakoa. Zaldi sementala, 3 urtekoa (edozein emariuzteko prest). Bizigutzia mendian egindakoa. ☎ 948 510079 (Joxe).

**Katu pertsa** buiri eta grisa salgai, hagitz polita. Kaiola, ontziak, arkakusoen pipetak... opari. ☎ 615 782292 (gaurer).

**Hamabostardi** salgai. ☎ 948 634077.

**Sabueso arrazako** bi hilobeteko bakarkumeak salgai. ☎ 655 743991.

## DENETARIK

### 701 Galdu-aurkituak

**Volkswagen** batengiltza aurkitu da trenabidean, Lesaka eta Igantzi artean. ☎ 618 963427.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Autoarentzako erremolkeak** salgai, estreinatugabea. Metro luze eta 95 cm zabal. 300 kilo arte. ☎ 948 637858 (19:00etatik aitzinera).

**Josteko makina industrial** salgai, FOMAX KDD-840H modelokoa. Hankeko arrastrearekin. ☎ 679 457546 (Beatriz).

**Solarium-a**, peluikeriko materiala eta muelteak salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 670 218232 edo 652746800.

**XBox bideokonsola** salgai, 3 mando eta 5 jokurekin. ☎ 616 167917.



Aurtiko **MIRIAM ALTUZURI** abenduaren 18an 23 urte beteko ditu. Aurtiz urtez songia eta ea noiz prestatzen duzun bokolate goxo goxo.



Aurtiko **AINHUA MENDEZABAL** abenduaren 15ean 23 urte beteko ditu. Zorionak familiararen partetik eta prestatu txarpaina.



Edurrako **AINGERU VALDES ZABALA** urteak bete du azaroaren 9an. Zorionak «bitito» familia osorekin partetik.



Edurrako **MIKEL VALDES ZABALA** urteak bete du azaroaren 9an. Zorionak «potolo» familia guztiaren partetik.



**GURE ILE GO-BAI** pintoak. Aurtiz urtez lanikideen partetik. Ea bokolate eta pasta goxoak ekaritzen dituguzun. Muxuak! Tutu.



Berat **MITXELENA SAGASTIBELZA** beratarak 9 urte bete ditu abenduaren 24an. Aurtiz urtez Lesakako amaxien partetik.



Patxi **LOHARTE** abenduaren 3 urte bete ditu azaroaren 27an. Zorionak aita, ama, iratxe, osaba eta zotabaren partetik.



Diego **BURRUARENA** Oritz leitarak 4 urte bete ditu azaroaren 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat Iratxi eta Mirtzen partetik.



Zorionak **MARIA** moto gidariak, azaroaren 14an urteak bete dituelako. Zuen hiruen urtebetetzean ongi pasatu, familiararen partetik.



**AINHUA** eta **OLAJAK** abenduaren eta azaroaren 24an 5 urte beteko dituzte. Aurtiz urtez bikote eta ongi pasa. Muxu bana Joseba eta Uxuekin partetik.



**OLAJAK OTXOTEKO TELLETREAK** azaroaren 24an 5 urte bete ditu. Zorionak eta hiru muxu aita, ama eta Uxuekin partetik.



Surbilako **KORO ZELAIETAK** urteak bete ditu azaroaren 28an. Zorionak Berako familiararen partetik.



Etxan **GARCIA** abenduaren 5 urte bete ditu abenduaren 5ean. Zorionak gure «pinillari». Aita, ama eta bereziki Kaniaren partetik.



**LUCIA FAGOGA** abenduaren 5 urte bete ditu. Nixu haundi eta goxo bat preziakoa. Aurtizo familiararen partetik.



Igantziako Irribereko **BATIXTA TELLETREAK** 92 urte bete ditu abenduaren 18an. Aurtiz urtez familiararen partetik.



Igantziako aitak **BATIXTAK** 92 urte bete ditu abenduaren 18an. Aurtiz urtez eta pa haundi bat Ori Irriberekin partetik.



Iñe **CAMBER** abenduaren 10 urte bete ditu azaroaren 22an. Zorionak eta muxu haundi bat amaren eta aitaren partetik.



Lesakako **AINAR ZAHARAIN** abenduaren 10 urte bete ditu azaroaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta Uxuekin partetik.



Osaia **RAPA** abenduaren 14 urte bete ditu abenduaren 24an. Zorionak atxekoekin partetik eta «ea noiz josten garen» bok partetik.



Zubiako **LUCIA FAGOGA** abenduaren 14an urteak bete ditu. Zorionak Zubiako familiararen eta bereziki aitaboi eta amaitoren partetik.



Saioa **DE LA FLOR** abenduaren 10 urte bete ditu. Muxu bat lehengusita petardo eta Aurtizo familiararen partetik.



Arantzako **IBAI** abenduaren 10 urte bete ditu. Zorionak Ibai eta muxu haundi bat familiararen partetik.



**JONIEL GAZTELU** abenduaren 10 urte bete dituzte eta goazen ba kartaferra nahiz ta aukeran nahago izan guk bertze modu batera karko zalku berre bueltan zure lagunen artean zulo beltz husek etabitate deha berreskuratzen aurtiz urtez, besarkada bat ta **ELISKAL PRESOKA ETXERA!**




**NAHA** eta **AÑE** abenduaren 2 urte bete dituzte azaroaren 25ean. Zorionak eta muxu haundi bana bi sorginetan polita Zubiako eta Doneztebeko familiararen partetik. Nola haunditu zaretan!

**NORBAIT ZORIONTEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,28 EUROKO 13 SEILU TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi-ttapa

Andutzeta, 12  
31760 ETXALAR

# ARRIET



haur eta gaztetxoekin arropadenda  
0-19 urte artekoentzat

Legio 45 • BERA • 948 630 550

hurbildu



**%50**  
beherapena  
denean

ZELAI - TXIKI <sup>SL</sup>

ZURGINDEGIA



*Altzari klasikoak nahiz modernoak*

NAHI DUZUN NEURRIRA ETA ESTILORA

Gaztaina, haritza, intxaurra, gerezia

ERROTA, 13 • IRAETAKO INDUSTRIALDEA  
20740 ZESTOA  
Tfnoa 943 14 75 32 • Fax 943 14 78 65  
[www.zelaitxiki.com](http://www.zelaitxiki.com)



## JOSTAILUEN ERAKUSKETA INFORMATIBOA

Erakusketa hau guraso, haur eta hezitzaileei zuzendua dago. Helburu nagusia jostailuen inguruan informazioa ematea da: jostailu on batek izan behar dituen ezaugarriak, nola erosi behar diren jostailuak, edota nola aukeratu adin bakoitzerako jostailu egokia.

**Lekua:** Berako Kultur Etxea

**Egunak:** abenduaren 5a (astelehena) eta 6a (asteartea).

**Ordutegia:** arratsaldeko 4:00etatik 7:00ak arte.

## GURASOENTZAT HITZALDIA

"Nola aukeratu jostailu egokia"

Garai honetan jostailuen inguruko informazio gehiegi izaten da. Horrek haurrak txunditu egiten ditu: dena dute gustuko. Eta gurasoak, jostailu aproposa aukeratu nahian, zoratu egiten dira.

Solasaldi honen helburua gurasoek aukeraketa horretan laguntza txiki bat ematea da: nola aukeratu jostailu egokia, zer hartu kontuan horretarako...

**Lekua:** Berako Kultur Etxea

**Eguna:** abenduaren 5a, astelehena

**Ordutegia:** arratsaldeko 7:00ak

**Iraupena:** ordu eta erdi inguru



